

# Karkara

*karkara.eus*

❖ **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2017ko irailaren 29a · 387 zenbakia

POSTERRAK  
OPARI!



Argazkia: Egiguren

## Ikaragarria!

32. Kontxako Bandera estropada epiko batean irabazita, denboraldi bikaina borobildu du Orioko mutilen txalupak.

**8**  
**Mahai bueltan**  
Jabier Zabaleta

**13**  
**Elkarrizketa**  
Beñat Ibaeta

**18**  
**Moila bazterretik**  
Eli Huegun

**29**  
**Kritika**  
Surflaria eta paradisua



# PUBLIZITATEA

ZAUDEN  
LEKUAN ZAUDELA



**karkaraeus**

**Nahikari**

HAUR DENDA  
TIENDA DE PUEBLO CULTURA

Arantzazu Kalea, 35  
28100 - Orío  
Tél. 943 83 36 30  
www.nahikari.es

**IZARRA ELEKTROGAILUAK**

**Selektatzen TOP 21**

ORDAINDU 21 hilabetetan\*  
ORDAINDU 21 hilabetetan\*  
ORDAINDU 21 hilabetetan\*

UDAZKENA

399 €  
399 €  
399 €

BALAY garbigailua 37S980XP  
Dentso LED  
Ekoizpena eta antzeko  
Antzeko programak

SMART TV  
LED 49 LG 49L594V

2017ko TOP 21  
Eusko Gudari, 44  
Tél. 943 83 36 30  
20810 Orío (Bizkaia)

**URRIAN**  
%10  
DESKONTUA  
MAKILAJE PRODUKTUAK

**Eki-lorea**  
belardenda

- Kosmetika naturala
- Erremedio naturalak
- Pisuaren kontrola; Dietista
- Naturazko kontsulta astearken eta ostiralak
- Elikadura ekologikoa, makrobiotikoa, zeliakoa...

Eusko Gudari, 5 - 20810 ORIO  
Tel. 943 831 377  
ekiloreabelardenda@gmail.com

**MANDALARA JARDUNALDIAK**  
**URRIAK 20, 21 eta 22**

jarduera guztiak **ARRAUNETXEn** izango dira  
ekitaldiak irekiak eta dohakoak

**mandalara taldea**

**Ostirala 20 / 19:00**  
HITZALDI PRAKTIKOA: Mandalak  
ZURE MANDALA SORTU/DESKUBERTU NAHI? (Almisa Lara Ribera eta Karnele Garmentia)

**Larunbata 21 / 16:30**  
BINAKAKO YOGA  
Helduentzat (Jeska Morales)

**Larunbata 21 / 12:00**  
ORGONTA TAILERRA  
Deskubitu "piera" berei haren propietateak. Helduentzat (Antonio Abad)

**Larunbata 21 / 17:30**  
HITZALDI:  
Heriotza, chakra eta elkarren erlazioak (Irati Olasola, Antropologo eta elkarrekin elkarrekin)

**Larunbata 21 / 18:00**  
"Solo un hasta luego"  
Ihorrazen aurkezpena (Koldo Alzola)

**Igandea 22 / 12:00**  
ISILDUTAKO DOUJA  
emakume berriak eta pertsonak (Nahikari Alkorta)

**Igandea 22 / 17:00**  
"La flamencura todo lo cura"  
Gure "DUCENDE" arean bira. Adin guztientzat (Monica Nafiez)

**MANDALARA TALDEA**  
www.mandalaratalde.com  
c/ Antxiola n°15-behea  
20810 Orío  
648 487 489

387

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea****20810 Orio****943 83 15 27****karkara@karkara.com****www.karkara.com****Editorea**Karkara taldea  
kultur elkarte**Erredaktore burua**

Miriam Garcia

**Erredakzio taldea**Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran  
Iñigo Exposito  
Iñigo Gaiton  
Jon Garate  
Aiora Larrañaga  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzkudun**Publizitatea**

Sonia Albizu

**Ale honetako kolaboratzaileak**Asier Colina  
Manu Etxeberria  
Eli Huegun  
Iñaki Iturain  
Garbiñe Manterola**Diseinua**

Saioa Perona

**Banatzaileak**Ibon Berasaluze,  
Endika Ruiz (Orio)  
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutako berriak berriak dira, osoz edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

2015 **β**ikain**LAGUNTZAILEAK**

Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTXAN JARRITAKOAK

**IBON ARRUTI** (DOINUA: MUNDU HONETAN HOLAKO GAUZAK)**Errezibimenduan, oriotarrei**

Aupa Orio mila zorion,  
begira zer dugun lortu;  
pentzatzen ez zen modun irten da,  
ezin da gehio eskatu.  
Ostiralean herri guztiak  
indarrak genitun batu,  
bandera baten ilusiotan  
bandera horixe lotu,  
denon artean lortu duguna  
herri guztiak gozatu!



JOXEJU OLASAGASTI

**ORIO AEko NESKAK** (DOINUA: GURETZAT)**Bazkarian, entrenatzaile, prestatzaile eta laguntzaileei**

Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
entrenatzera goaz Rafa bertan da ia.  
Pintzak eta metrua hau berri alaia  
atzetik agertu da lma sekretaia!

Kamixeta horia orain duzu goatu  
azaroa bitarte ez ezazu ahaztu

Zuen entreno ta laguntza  
dugu guk asko eskertu  
Rafa, Imanol, Erki ta Xanti  
zuek ere ezin ahaztu!

Fuerabordako diskusioak  
egiten gaitu indartu  
10 hilabete eta gero  
famili gara bihurtu.

GPS ta dronak gaituzte kontrolatu  
horrek egiten gaitu perfektu bihurtu.  
Zuen esanak dira guretzat agindu  
*diamantes en bruto* garel sinistu.

Nahiz ta izan plazerra iritsi da amaiera  
aitxa gaitzen denok topa egitera!

Publizitatea kontratatzeke:

**Karkara****688 859 682 (Sonia)****publizitatea@karkara.com**

K

**karkara.eus****EUSKO JAURLARITZA****GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



## Euskal dantzen ikastaroa

Fandango, Arin-arin, Mutxikoak, Larrain dantza, eta abar ikasteko aukera eskaini nahi diegu 18 urtetik gorako herritar guztiei. Irailaren 27an hasita, asteazkenero, gaueko 9:00etan Kosta tailerrean izango gara. ■ **Talai-Mendi hel-duen dantza eskola**

## Mila esker nirekin dantzatzeagatik!

Aurtengo uda berezia izan da niretzat, aukera izan dudalako *Dantzatu nirekin!* programa martxan jartzeko. Programaren barruan hogeitik gorako neska-mutil koadrilla eder bat osatu eta dantzan aritu gara hondartza inguruan eta herrian, musika eta erritmo alaiak konpartituz oriotarrekin eta bisitariekin. Oso polita izan da!

*Dantzatu nirekin!* programa abiatu eta gauzatzeko, jende askoren laguntza izan dut eta ezinezkoa zait guztion ize-nak hemen aipatzea; baina bereziki eman nahi dizkiet eskerrak Udalari eta hondartza inguruko eta herriko tabernariei, gu horren goxo hartzeagatik; eta, zer esanik ez, dantza-koadrillako neska-mutil prestu guztiei eta haien guraso inplikatuiei, Orioko aurtengo udari kolorea ematen laguntzeagatik. Muxu handi bana denontzat! ■ **Ayala Lopes**

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektroniko honako helbidera: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com) edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

## HAPO: bi urteko geldiunearekin, EAJ etorkizunari ateak ixten

Orioko herriaren etorkizuna finkatuko duen dokumenturik garrantzitsuena da Hiri Antolamendu Plana eta herriko ezaugarri guztiak kontuan hartzen ditu: gizarte mailakoak, ingurumenekoak...

- 2013ko uztailean, erabaki zen HAPO berria tramitatzea eta 2017an bukatuta beharko luke izan.
- 2014ko abenduan dokumentuaren aurrerapena jende aurrean jarri zen, proposamenak azaldu ziren, eztabai-

datzeko bost saio egin ziren herritarrekin eta saio haietan jasotako ekarpenez gain, idatziz 16 iradokizun aurkeztu zitzaizkion Udalari. Hori guztia Bildu-Orain agintaldian.

Gardentasunez eta herritarrekin partekatuz abiatutako lan hau inolako argibiderik eman gabe bahitu eta kaxoi ilun batean gorde du EAJk, eta 16 herritarrek egindako iradokizunek ez dute oraindik erantzunik jaso. Geldialdiaren ondorioz, bi urteko atzerapenekin goaz, eta ez dira bete Antolamendu Plan hori gidatzen ari den enpresarekin hartutako konpromisoak. EAJk kinka larrian jarri du aurrez egindako lan guztia.

Gestio onaren ikur direla esango dute, baina errealitateak beste aurpegi bat erakusten du. ■ **Orioko EH Bildu**

## Ibai Beorlegiri

Egurra sartu digu Ibai Beorlegik Ikasleak idazle-ko iritzi artikuluan Karkaran Aiari buruzko orrialde kopurua dela eta –ikus 33. or–. Aipatu dituen datu guztiak zuzenak ez diren arren –esan dituenak baino orrialde gehiago eskaini genizkion Aiari abuztuko zenbakian– ez dugu esango arrazoi faltarik ez duenik. Zintzoak izate aldera, ez da oraingoa Karkarako taldekideok Aiako albisteen inguruan dugun kezka; egiari zor, kosta egiten

*Lizaso dekorazioa*



**Tf:**  
**943 83 07 84**

**Faxa:**  
**943 24 87 15**

**Eusko Gudari, 48**



**Sagasti**  
**LEIHOAK**

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
[sagasti@sagastileihok.com](mailto:sagasti@sagastileihok.com)  
Arrantza kalea, 65  
20810 ORIO (Gipuzkoa)



obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
eraikinen mantenua

**arkitektura**

borja agirresarobe lopetegi  
herriko-barra 6, behea  
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
[xs@xsarkitektura.com](mailto:xs@xsarkitektura.com)

zaigu Aiako gaiak eta albisteak aurkitzea. Udalarekin, herri kirol antolatzaileekin, festa batzordeekin eta bestelako elkarteekin harreman joria izaten saiatzen gara, eta alde horretatik, gure webgunean eta aldizkarian isla izaten dutela esatera atrebitzen gara.

Ohiko albisteez gain ordea, oso garrantzitsuak dira bestelakoak ere: Ospakizun bereziak, herritarren eskertzeak eta kexak, ezbeharrak, elkarriketa atseginak, erreportaje interesgarriak.... eta horretan batzutan hankamotz geratzen ari garenaren us-tea dugu.

Zein da, ordea, konponbidea?

Karkara, ez badakizue ere, lan profesionalean eta borondatezkoan oinarritzen da. Egunero bi edo hiru langile egoten dira lanean buru-belarri, profesional, eta beste dozena erdi batek bileretan eta saretik kolaboratzen dute,

borondatez. Ez dago esan beharrik lehenbizikoa bezain inportantea dela bigarrena. Oreak horretan sinisten dugu, emaitza profesionala eta, era berean, herrikoia izateko.

Alde horretatik, oso garrantzitsua da bi herrietako jendea egotea lan taldean, bateko eta besteko berri azkar eta zuzen izateko. Ez pentsa saiatu ez garenik, hala udalean nola udaletik kanpo saiatu izan gara aiarrak animatzen Karkarako lan taldean sartzeko. Lehengo aiarrak laga zuenetik, horren mira dugu, watsappetik norbaitek Aiako nobedadeak eta ideiak noiz emango. Gurea herri aldizkaria da, eta ezinbestekoa da herritarren kolaborazioa edo laguntza. Argazkiak atera eta bidaltzen, ideiak ematen, erabakiak hartzen, irakurleen iritzia biltzen, iritzi artikulua idazten, kirol emaitzak ematen, erreportajeak iradokitzen,

publizitatea proposatzen... ulertuko duzuen bezala bi pertsonak ezin dute toki eta esparru guztietara iritsi, guztia etortzen zaigu ondo.

Dena den, Ibairen errieta aintzakoizat hartzen dugu, eta aiarrak gure taldean parte hartzera gonbidatzen ditugun eran, hitz ematen dizugu saiatuko garela Aiako argazki eta berri gehiago sartzen. ■ **Karkara taldea**

## 1957ko kintako aiarren bazkaria

Urriaren 21ean, larunbatean, 1957an jaiotako aiarren bazkaria egingo dugu. 12:30ean elkartuko gara Aiako plazan, gero bazkaltzera joateko. Bazkarira etorri nahi duenak urriaren 15a baino lehen eman behar du izena, 619432545 telefono zenbakira deituta. ■ **Palaziyo**

## HILDAKOAK

- Felix Arrillaga Unsain, Aian, irailaren 11. 74 urte.
- Jose Manuel Eleizalde Illaramendi, Aian, irailaren 11. 70 urte.
- Jose Manuel Segurola Agirre, Aian, irailaren 4. 82 urte.
- Jose Ibirriaga Iturain, Orion, abuztuaren 30ean. 88 urte.
- Vicenta Gomez Nuevo, Orion, abuztuaren 28an. 94 urte.

## EZKONDUTAKOAK

- Amaia Atxa-Orbea Iriarte eta Ibon Beñat Salbidegoitia Garoia, Orion, irailaren 15ean.
- Jose Ignacio Martinez Ruiz eta Marta Maria Garcia Jimenez, Orion, irailaren 2an.
- Elixabet Zabaleta D'Anjou eta Ignacio Zenon Garin Bujanda, Orion, abuztuaren 14an.

## JAIOTAKOAK

- Lucia Alguacil Maya, Orion, irailaren 15ean.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
**943 83 15 27**



**Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa  
> Hileta zerbitzu orokorrak  
> Zerbitzu iraunkorra



**Harrespil**  
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



**sinergia**

FISIOTERAPIA  
IKERKETA

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA    WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577    685 718 595

## EKAINKO KRONIKA



Ordiziako gazta txapelketa irabazi du Odriozolak. A. LARRAÑAGA



Jende mordoa ibili zen Gazte Festetan. KARKARA



Bandera hori batzuk ikus daitezke oraindik balkoietan. KARKARA

## Urrezko kontxa

“Biharamunean ez ezik, oraindik ere barnean dabilkigu irailaren 10ekoa, bihotzetik bururako bidea egiten nonbait.”

Ez da beste konturik izan Orion, Aian, Zarautzen, Usurbilen, Donostian, Pasaian, Hernanin, Zumaiian, Hondarribian... ondo daki hori herritik kanpo lan egiten duenak. Biharamunean ez ezik, oraindik ere barnean dabilkigu irailaren 10ekoa, bihotzetik bururako bidea egiten nonbait. Urrezkoa izan da aurtien arraunlari guztiek eman diguten Kontxa! Oriozaleek ez ezik, arraunzaleek ere sekulako gozatua hartu zuten.

Odriozolarren gazta ere urrezkoa izendatu dute Ordizian, artzainen Kontxan. Lehendik ere Aiako gaztak onak zirela bagenekien baina holako saria irabazi duen gazta urte gorriaren pare saltzen da – San Jose egoitzakoek eskertuko dute –. Gazta haren ondorengoak era hala salduko dituzte Agerre-Burun, ez dituzte alperrik egin 31 urte gaztak egiten. 31 eskutik orain, bejondeiela!

Baina egun hauetan ere bada gure inguruaz zer ikusi pantailea handian, urrezko maskorra gora-behera. Errio bazterreko gure arbaso marinelez aritu dira Elkarrekin-Together film dokumentalean. Joanes Etxaniz edo eta Larrumeko Juan-en moduko balea arrantzaleek lagatako arrastoen bila egindako dokumentala osatu dute Albaola Itsas Kultur faktoriako lagunek. Errementari pelikula, aldiz, Pagoetako parkean grabatu zutena, Sitgeseko zine fantastikoaren festibalean estreinatuko da urriaren 12an, eta sail ofizialen lehiatuko du. Sari nagusia eskuratuko balu? Jarrai dezagun olatu gainean!

Gazte festekin bukatu dute astea Orioko gazteek, Aiakoek abuztuan egin zuten gisan. Eta, hemendik aurrera, Kataluniaz gain Zaraguetak eta herriko futbol taldeek emango dute zeresana, besteak beste. Balkoitik bandera horia kentzeko garaia da.

KARKARIÑOAK



# Nola bizi zenuen Kontxako estropada? Bertan behera utzi behar zela iruditzen zaizu?



“Uretan ez nintzen arriskuaz erabat kontziente”

**L**a bi aste pasa dira Kontxako estropada jokatu zenetik eta, orain, la-saitasunarekin pentsatuta, dudarik gabe esan dezaket estropada historiko batean parte hartzeko aukera izan genuela.

Uretara irten ginen momentuan ez nintzen hartzen ari ginen arriskuaz eta egoeraz erabat kontziente. Nadethenganak eta taldekideekiko 100% konfiantza daukat eta horrek indarra ematen dit.

Hori bai, lehorrera iritsi nintzenean ikusi nuen gurasoek pasa zuten beldur guztia. Orduan izan nuen errealitatearen kontzientzia.

Nire ustez egoera ezberdinetan jokatu ziren nesken eta mutilen estropadak eta telebistan eman zituzten irudietan ez zen uretan gertatutako guzti guztia ikusi...

Badut taldekide guztien amentzat mezua: bizirik gaude!

**Lukene Lizaso Elizondo**

“Egoera ikusita, nesken estropada ez nukeen abiaraziko”

**F**amiliarekin ikusi nuen. Lehenik arranplan uretaratzea ikusten eta gero taberna bateko telebistan. Nesken kasuan arduratuta, giroa ikusita. Mutilen kasuan ezin da adierazi hitzetan sentitu genuena, pozez txoratzen, malkoak ere izan ziren... Hainbeste urte ondoren era ikusgarri horretan irabaztea izugarria izan zen. Eta bukatzeko, berriro ere arranplara oriotar guztiakin batera ospatzera.

Itsasoaren egoera ikusita, nesken estropada ez nukeen abiaraziko, benetako arriskua zegoela iruditzen baitzait. Mutilen estropada hasterako, ordea, eguraldia zerbait hobetu zen, eta ez nuen arrazoirik ikusten ez jokatzeko. Erraza da orain hausnarketa hauek egitea, baina han zeudenek erabaki bat hartu behar zuten momentu horretan, egoera desberdinak baloratuz: arriskua, segurtasun teknikarien iritzia, atzeratuz gero sortutako eragozpenak, telebista, ikusleak...

**Igon Lertxundi Lizarralde**

“Niretzat bigarren Kontxa izan da lehorretik”

**N**iretzat bigarren Kontxa izan da lehorretik, iaz ez nuen Donostira joateko adorerik hartu. Aurten umeei kamixeta horia jantzita joan ginen –niri kostatuko zait oraindik, Zumaian 10 urte arraunean pasa eta gero, familia osoa oriotarra den arren-. Nesken estropada urteetan gogoratzekoa izango da. Duela 10 urteko emakumezkoen sailkapen estropada nuen buruan. Egun hartan ere sekulako itsasoa altxa zen, 3,5 metroko olatuekin. Orduan ere entzun zen bertan behera gelditzeko aukera. Jokatu zen ordea, eta arraunzaleontzat ikuskitzun ahaztezina izan zen. Balantzan jarri beharra daude, ordea, arraunlari guztien adorea eta segurtasuna, eta bertan behera gelditu izan bazen, inork ez luke erabakia zalantzan ipiniko.

Mutilek irabazi zutenean arranplara hurbildu ginen. Zirrara, emozioa eta zergatik ez, pixka bat oriotarragoa ere sentitu nintzen igande hartan.

**Libana Taboada Moran**

**MAHAI BUELTAN**

Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxeko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

## «Ez dugu euskara erdigunean jarri»

### Jabier Zabaleta Iraola Arròs a la muntanya



#### Osagaiak

Arroza 400 gramo.  
200 gramo butifarra edo saltxitxa.  
Sepia edo txipiroia, ertaina.  
125 gramo onddo.  
100 gramo ganba.  
100 gramo orburu edo alkatxofa.

Tipula 1.  
Piper berde 1.  
2 baratxuri ale.  
Tomate 1.  
Ardo zuria.  
Gatza  
Piperrautsa.  
Oliba olioia.

#### Edaria

*Pla de Bages* jatorri izendapena duen ardo beltza

#### Nola egin

Tipula eta piper berdea zati txikitan moztu eta oliotan doratu. Baratxuria eta ardo zuria gehitu. Barazkiek kolorea hartzen dutenean tomatea, gatza eta piperrautsa bota eta nahastu konfitura antzeko zerbait lortu arte. Salda egiteko ganben buruak eta azalak zuritu eta egosi irakin arte litro bat uretan. Ondo iragazi. Ganba zurituak eta sepia zatitua salteatuko dugu. Olio berean pasa butifarra edo saltxitxak, kolorea hartzean erretiratuko ditugu. Barazki nahaskia egin dugun ontzira onddoak eta orburuak gehituko ditugu, aurrez orburuei kanpoko azalik lodienak kenduta. Minutu batzuk egosten utzi eta gehitu butifarra eta sepia. Ondoren arroza. Ondo nahastu. Salda beroa gehitu: bi arroz tazako bost saldarenak. Su ertainean hamabost minutu beharko ditu gutxi- gorabehera. Nahastu tarteka eta zaindu gatza. Saldatsu gelditu behar du. Bukatzeko, ganbak gehitu eta sua itzalita utzi bost minutu atseden hartzen.

### JON AGIRRESAROBÉ

Psikologia eta pedagogia ikasia, 1987. urtean Udalean hasi zen itzultzaile eta 28 urte daramatza hizkuntza teknikari lanean. Kataluina izan du eredu. Maiz izan da han, katalanez ere moldatzen da. Sukaldean ere bai. Paella lehiaketa izan da Gazte Festetan eta Zabaletari eskatu diogu errezeta: Lleida iparraldean, Basella herriko *Cal Ton d'Ogern* jatetxean jan omen zuen inoiz probatu duen arrozik onenetakoa.

#### Hainbeste urtetan zer irabazi eta zer galdu du Aitorren Hizkuntz Zaharrak Diketrik Bikamiotara?

Bi esparru bereizi behar dira: Udala eta herria. Oso lan ezberdinak dira. Udalean badago zeregina, baina urteen poderioz asko hobetu da. Sartu nintzenean euskara ez zen erabiltzen eta kalitate eskaseko itzulpenen bat egiten zen tarteka. Gaur egun, gehienbat, euskaraz funtzionatzen du Udalak. 28





Irailaren hamaikan Bartzelonan izan zen Jabier. KARKARA

“Udalean badago zeregina baina urteen poderioz asko aldatu da. Gaur egun, gehienbat, euskaraz funtzionatzen du Udalak”

“Aurten, duela bi urte baino independentzia oihu gutxiago entzun dut. Badu azalpena: dagoeneko ez daude errebindikazio fasean, gauzatze puntuan daude”.

urte behar izan ditugu, ibilbide nekeza izan da.

Herrian balorazio gazi-gozoa egingo nuke. Paisaje linguistikoa asko hobetu da. Denda eta tabernetan, esaterako, euskarak presentzia asko irabazi du. Ahozkoan ez dugu irabazi: etxeko edo tabernako elkarrizketetan ez dakit ez ote dugun atzera egin. Euskaldunon tipologia dezente aldatu da urte hauetan guztietan: lehen herritar multzo handi samar bat beti euskaraz aritzen zen, gaztelaniaz baino errazago moldatzen zelako. Gaur egun, egoera nahastuagoa da, denok hitz egiten dugu erdaraz erraz samar. Gaur arte erabili dugun diskurtsoak eragina izan duelakoan nago: diskurtso oso integratzailea izan dugu, inor ez baztertzekoa. Horrek ekarri du helburuen lausotze bat. Horrela beharko zuen, euskaratik oso aldentuta zegoen jendearekin bizi izan gara. Ez dugu euskara erdigunean jartzen asmatu.

### **Karkaran aritu zinen urte luzez. Zer moduz ikusten duzu herri aldizkaria?**

Sendo ikusten dut. Adibidez, aurten estropada kontuei egin zaion jarraipena oso ona iruditut zait. Karkarak bat egin behar du herrian interesatzen diren gaiekin.

### **Kataluinako herriarekin lotura handia izan duzu beti?**

Lehenbiziko aldiz hogeita zortzi bat urterekin joan nintzen, lanean hasi berritan. Ordurako lanketa eta antolaketa handia zuten hizkuntzaren normalizazioaren inguruan. Euskal Herrian ez zen ohikoa herri txiki eta ertainek euskara teknikaria izatea, hemengo egitura prekarioa zen hango sarearen aldean. Hizkuntzaren egoera ere argi urteetara zegoen, jakina. Hango hizkuntza teknikariekin egin genuen harremana, kartaz komunikatzen ginen.

Ez da bide bakarra izan, Santos Carreterok eta Sorkunde Lizasok lagunak egin zituzten Manresan eta harremana sendotu dugu joan-etorrian. Duela hiru urte erabaki nuen katalana ikasi behar nuela. Ez nintzen eroso sentitzen lagun katalanekin gaztelaniaz arituta. Donostian hasi nintzen. Ordurako dezente ulertzen nuen baina hizketan hasteko bultzada behar nuen.

### **Parlem del procés català. Diadan izan zara aurten. Nola ikusten duzu kontua?**

Inbidia handiz. Diadako giroa izugarria zen: zer gertatuko zain dago jendea, tentsioan baina itxaropentsu. Oso ezberdinek dira hango eta hemengo mobilizazioak. Milioi bat edo gehiago herritar, festa giroan: ez aurpegi txar bat, ez paper bat lurrera... Giro zibilizatua, lasaia eta atseгина, festa azken batean. Aurten, duela bi urte baino independentzia oihu gutxiago entzun dut. Badu azalpena: dagoeneko ez daude errebindikazio fasean, gauzatze puntuan daude.

### **Zertan aldatu da Katalunian azken hamar urtean?**

Klase ertainaren zati handi bat independentista izatera pasa da, asko Convergenciaren eta Esquerra Republicanaren bueltakoak. Herritarrek eman dute lehen pausoa, politikoak atzetik joan dira. Artur Masen adibideak azaltzen du ondo aldaketa: politikari posibilista izan da beti, eta gauetik goizera bere bozkatzailleak Bartzelonako Diadan independentzia aldarrikatzen ikusi zituen. Berehala ikusi zuen etorkizun politikoa izatekotan prozesua bideratzera pasa behar zuela.

# PUBLIZITATEA

*edertegia*  
**ANTILLA**  
*jateketa*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

**Carmen eta Txomin**  
 ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**HAIZE BERRI**  
 taberna-jateketa-kafetegia

Plater konbinatuak,  
 bokaloak,  
 hamburgerak,  
 raziok,  
 eguneko menua...

*ostiralean  
 pintxo  
 potea!*

eta etxera eramateko  
 zerbitzua!

**943 831 623**  
 Oriko kintaldegi, Iturbere 1



**ASADOR  
 XIXARIO**

Leioa Gasteiz Kalea, 2  
 Tel. 943 830 819 - ORIO

**Portu**  
 ERRETEGIA

Santo Erreka Auzoa, 49  
 943 89 44 34  
 20809 AIA-ORIO

*braskak, barakak, txakurak,  
 pintxoak, entzikak, eranda, morea*

**ITZALA**

*kartela, jokatze  
 aparatuak*

tel. 943 83 12 59

**Gabon**  
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

**KOLON TXIKI**  
*antillako  
 jateketa*

Herriko Enparantza, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44

**ARISTERRAZU**  
 jateketa

Andatza auzoa AIA  
 Tel. 943 83 45 21

**ROSANA**  
 -ARGAZKI ESTUDIOA-  
 fotorosanaarruti@gmail.com  
 tel: 943 83 58 45



**Gaberna**  
 JATEKETA

Antillako  
 Hondartza 5  
 20810-Orio  
 Tel.: 943 89 04 16



**KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA** **GELATTO**



**943 578 176**  
 Herriko enparantza

**Izozki naturalak - Opilak**

**PIZZERIA**



**KALETA**

ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46

**arkaitz taberna**  
 orio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
 Giro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

## AKUILUA HARTUTA

## NIRE HONETAN

# Beste hamarkada Kontxan garaituz



Manu Etxeberria

**H**amar urte igaroak ziren gure txalupak Donostiako sari handia azkenekoz irabazi zuenetik. Hamar. Urte gehiegi inola ere, historia luze batean garaipena ikur izan zuen herri batentzat. Hain zuzen, modu ikusgarrian izanda, berpiztearen garrantzia areagotu egin du, dudarik gabe. Atzean geratu dira onenen artean aritzeko izerdi gorria atera behar izan genuen urte haiek, edo-eta hirugarren postuarekin konformatu beharra zeuden estropada haiek.

Bistan da urte onak datozela gure Mirotza txapeldunarentzat. Odol gazteak eta eskarmentu handiko estropalari beteronok garaipenaren bidera eramango gaituzte, alajaina! Uda honetan haren tostetan oreka izan da nagusi adin guztietako estropalariak erabiliz. Zarauzko Ikurriñan gazteek irabazitako estropada, egindako lan zoragarria, izugarria, datorkigun garai berriaren iragarle argia da.

Joan den mendearen hasieratik Oriok ez du huts egin hamarkada batean ere Kontxako maila gorenean. Aurtengoarekin tradizio honek segida bikaina izango du, Kantauriko gainerako taldeen begirunea irabaziz, berriz ere. Talde gutxi dira, haien Kontxak batuta ere, Orioren parean jar daitezkeenak. Hogeita hamabigarrrena, negu honetan lege onez *berreskuratu* duguna barne.

Liga datorren urterako erronka izango da. Izango da bai borroka, Urdaibaik eta Hondarribiak ez baitute ezer oparituko. Ikaragarria izan da uda honetan ilusi ahal izan dugun kirol maila Kantauriko estropada-eremuetan. Ehunenekotan erabakitako estropadak izan dira, eta inoiz baino gehiagotan erabili behar izan da bideo-finisha. Errekorrak hautsi, estropada ikusgarriak egin, eta gutxitan ikusi den hiru traineruren arteko norgehiagoka gogorra, inoiz ere jakin gabe haietako zeinek zuen aukera garbiagoa estropada hau edo hura irabazteko.

Hala eta guztiz ere, eta batzuk ukatu nahi duten arren, Kontxak ematen duen ohorea eta prestigioa ez du ematen lehiaketa berriak. Honek erregularrenari ematen dio saria; estropada gehienetan onena izan denari. Baina, Kontxa olinpiada, edo mundiala, da, eta han irabazten duena da benetako txapelduna, udako txapel nagusia jantziko duena. Aurtengoan, Orio. Gora oriotarrak!



Miriam Garcia

## Ez da hain zaila

**H**an dira uda honetan pare bat gertakari nire atentzioa eman dutenak eta sare sozialetan oihartzuna izan dutenak.

Urrunetik hasita, Herbehereetan Architects taldeko abeslariak kontzertua geratu zuen abuztuan, ikusleen artean gizonezko batek emakume bati egindako erasoagatik. *Ez da zure gorputza!* oihukatu zion Sam Carterrek erasotzaileari.

Egun batzuen bueltan Nafarroako herri bateko –ez dut gogoan non zen zehazki– txosnagunean festa eten zuten bat batean. Jendearen artean erasotzaile bat zegoela eta hura joan arte festak ez zuela jarraituko esan zuten oholtza gainera igo zirenek. Denen artean erasotzailea bota zuten.

Uste duguna baino ohikoagoak dira alkohola eta jendetza aprobetxatzen duten gizonak emakumeak beren borondatearen kontra ukitzeko. Zoritxarrez, ez da batere ohikoa horrelako egoeraren bat ikusten duenak publikoki salatzea.

Badirudi eraso bera identifikatzea ere kosta egiten dela askotan. Ez da hain zaila! Etengabeko begirada lizunak erasoak dira, baita ezezkoa jasota neketsua izatea ere. Baimenik gabe norbait ukitzea ere eraso dela ez dago esan beharrik.

Guztion betebeharra da eraso horien aurrean zerbait egitea, salatzea, eta erasotzaileari aurre egitea. Ezer egiten ez badugu konplize izango gara.

Askoko dago ikasteko, hausnartzeko eta iraultzeko. Horregatik da hain garrantzitsua goian aipatutakoak bezalako erantzunak ematea eta, batez ere, zabaltzea.



## PUBLIZITATEA



**Ubegun industrialdea, 7**  
**20809 Aia-Orio**  
**Tf/fax: 943 83 51 86**  
**carroceriasazkue@hotmail.com**



**GARMENDIA**  
 HIRIEN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASIGURUAK

Ibai Ondo, 1  
**Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941**  
**Informacion@garmendiagestion.com**

**SU KIA**  
 IABENIA JABETZA

On egite eta gero... hartu KODA eta TOPAIE

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGURKARIK
- OGIA

Tel.: 943 834 466  
 ABARRONEN 10, 1. BARRUA



**Seguros Bilbao**

Tel: 943 111 600  
 688 714 869

Endala Enparantza, 1  
 20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco  
 Orioko ordezkaria  
 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com




**Tf: 943 130 438**



**ur bide**  
 iturginak s.l.

iturgintza - Berogintza

Bizkara Kalea, 4  
 20800 Zarauz  
 943 890 069  
 urbideiturginak@gmail.com  
 www.urbide.es

**URANGA**  
 burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

**fer.uranga@euskalnet.net**  
**Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5**



**Imanol Illarramendi**  
 Aia (Gipuzkoa)

**KORTABERRI**  
 arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com  
 665 70 33 47

**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidalak S.L.*



Autobus litera eta  
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
 Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**



Pelotari 5, Orio  
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**IGLESIAS**  
**SARRAILAGILEAK**




Javier Iglesias Fernández  
**637 723 308**  
 iglesiasjavier@iglesias.es  
**20810 Orio**

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDUEKIN ALDAKETA
- KOMUNITATEBENTZAKO ZERBITZUA

**24 ORDUKO ZERBITZUA**



# “Mutiozabalek errio bazterraz gozatzeko aukera eskaini behar die oriotarrei”

## **Beñat Ibaieta**

Euskal Bateleroen elkarteko zuzendaria

Beñat Ibaieta zumaiarra ontziola berreskuratzeko setarekin ibili da azken bizpahiru urtetan, atzera eta aurrera. Eraikina berritu ostean, argi du hurrengo helburua zein den: Mutiozabal Euskal Herriko itsas ondarearen gune erreferenteetako bat bilakatzea.

**ELKARRIZKETA****I. GAITON**

Teilatua eta paretak egonkortzeko obra amaituta, itxura ederra du ontziolak. Bertan bildu da KARKARA Beñat Ibaietarekin. Errio bazter honek duen txoko bakoitzean, xarma eta historiaz gain, etorkizuna ere ikusten du zumaiaarrak.

**Nondik dator kizua egurrezko ontziak berreskuratzeko afizioa?**

Umetan, eskolara bidean, txalupak ikusten nituen ibaian lotuta, eta atentzioa pizten zidaten. Duela zortzi edo bederatzirte, ontzi zahar bat erosteko aukera suertatu zitzaidan, eta gozatu egiten nuen hura konpondu eta txukuntzen. Aldi berean, Zumaiaiko Beduola elkarteko bazkide egin nintzen.

**Zer egiten duzue Beduolan?**

Bi helburu nagusi zituen elkarteak sorreran: egurrezko ontzien erabilera berpiztea, eta Beduan egon zen ontziola zaharra berreskuratzea. Gaur egun, txalupa zaharrak konpon-tzen ditugu, eta jendeari uretan arraunean edo nabigatzen ibiltzeko aukera eskaini. Aktibitatea sortzen saiatzen gara. Historian zehar ontzigintzaz jasotako jakintza immateriala bildu eta gizarteratzen ere bai.

**Albaolan ere jardun zinen lanean, Esteban Gozategi eta konpainiarekin.**

Sei hilabetez, boluntario. Esteban eta biok elkarrekin joaten ginen Pasaiara autoz. Albaolako esperientziatik, lanera bidean berarekin izaten nituen hizketaldiak ditut buruan ondoren gordeta, asko ikasi nuen.

“Mutiozabalek jendea behar du inguruan: txalupa zaharrak konpon-tzen, berriak egiten, errioan arraunean edo nabigatzen...”





### **Euskal Herriaren historian ontziola asko izan ditugu.**

Bai, ontziolak itsasoaren inguruko ondare edo kultura guztia motorra izan dira.

### **Oriok itsas ondare oparoa du.**

Bai. Hala ere, Oriok arraun kirolean, estropadetan, baliabide asko inbertitu dituen bezala, itsas ondareari dagokionez, eta ontzigintzan zehazki, asko galdu du. Zorionez, badira lan handia egin duten norbanakoak, Jesus Mari Perona kasu. Berari esker, Mutiozabaleko plano asko berreskuratu dira. Bestalde, Migel Antonio Mutiozabal izan da niretzat hemengo erreferente handiena. Bere arbasoak Uriberri ontzian –Aginaga– hasi ziren ontziak egiten. Oria ibaian 1876 eta 1929. urteen artean eraikitako ontzien %50-a baino gehiago, berak egin zituen. Migel Antonio izan zen plano bidez ontziak diseinatzen lehenetarikoa.

### **Zein harreman duzu Mutiozabal ontziolarekin?**

Itsas ondareaz gehiago jakiteko harra sartu zitzaidanean, Orioko ontziolarekin historia zati handi bat erreuperatzeko aukera zegoela ikusi nuen berehala. Udalarekin harremanetan jarri nintzen, Euskal Bateleroen elkartearen babesarekin, Mutiozabal berreskuratu eta konpontzeko aukerak aztertzeko.

### **2016. urte hasieran, Udalak txosten bat enkargatu zizun, ontziolaren balio historikoa eta etorkizunerako aukerak zehazteko eskaerarekin.**

Bai, eta entregatu ere egin nuen. Aukera asko planteatzen di-

tut dokumentuan. Mutiozabalen ontzi zaharrak konpondu edo berriak eraiki daitezke, jendeak erriean erabiltzeko. Orio Euskal Herriko lehen herria izango litzateke aisialdirako txalupak alokatzeko zerbitzuak eskaintzen. Bestalde, hitzarmenak sinatu beharko lirateke herriko ikastetxeekin, mankomunitateko elkarteekin eta beste erakunde askorekin. Adin ezberdinetarako eskaintza diseinatu behar da: unitate didaktikoak eskoletarako, hitzaldiak helduentzat, ikastaroak erriberako arotzaren ofizioa ikasi nahi dutenentzat... Bestalde, turismo kulturalak geroz eta interes handiago duenez, kanpotarrentzako jarduerak ere eskaini behar lirateke.

### **Etorkizuneko Mutiozabal/Itsas kultur zentro dinamikoa gisa definitzen duzu.**

Bai, hori da. Euskal Herriko itsas ondarearen erreferentetako bat bihurtu behar du.

### **Nola ikusten duzu Mutiozabal hemendik 10 urtera?**

Bizirik, parean uretan egurrezko ontziak elkarriz lotuta dituela, jendea etorri eta erabili zain. Aisian edo hezkuntza arloan, eskaintza zabalarekin. Erriean edo itsasoan arraun egiteko edo nabigatzeko txaluparik ez dutenek, uretan gozatzeko aukera izango lukete. Jendea behar du Mutiozabalek atzera eta aurrera, ontzi zaharrak konpontzen, berriak egiten, erriean arraunean... Orion jende askok du kresala barruraino sartuta, eta berehala hartuko luke martxa erri bazterrak.

# Ilegaltasunez



Eli Huegun

***Iribarrerren bat ere ateratzen dit batzuetan txioen erreinuak eta eskertzen dugu, azken boladan tristura baino ez dudalako sentitu.***

**H**itzok idazterako garaian, ia astebete falta da urriaren baterako eta Twitterren Piolin askatu dutela ospatzen ari dira. Iribarrerren bat ere ateratzen dit batzuetan txioen erreinuak eta eskertzen dut, azken boladan tristura baino ez dudalako sentitu. Azalduko dut zergatik.

Espainiako autoritateetatik saldu dute ilegala dela, eta ilegaltasunaren aurrean zuzenbide estatuak erantzun egin behar duela, daukan indar guztiarekin. Bai egin ere. *Beirut arrasatzeko adina polizia* sartu dituzte Bartzelonako portuan, agenteak launaka sartuz leihorik gabeko kabinetan bizitzera. Herriari ahotsa eman nahi diotenak atxilotu eta baimen judizialik gabeko erregistroak egin dituzte alderdi politikoen egoitzetan. Botere Judizialetik kanpo dagoen organo bat, era politikoan aukeratzen dena, Auzitegi Konstituzionala alegia, zigorrak ezartzen hasi da. Eta guztia *erreferendumen makinaria* bertan behera uzteko. Legearen kontra doazenak garaitzeko, eurak ere legearen kontra.

Nire sorpresa gizartearen erreakzioan dago. Eta ez sare sozialetan bakarrik, Madrilen pertsonan ere bizi izan ditu-

dalako horrelakoak. Jendeak aintzat hartu du legaltasunaren argudioa, horrekin auzia argituko balitz bezala. Burua joan zaien hamalau politikari soil balira bezala.

Arazo politikoek erantzun politikoak behar dituzte. Legea ez errespetatzea ezin da onartu, jendeak ezin du sudur puntan jartzen zaiona egin. Ados, baina ez gara pertsonen edo gauzen kontrako delituez ari, legea ez errespetatze honetan ez baitago oinarrizko eskubideen urraketarik. Eta ez dezagun ahaztu ez dela bat-batean jaiotako zerbait: Kataluniatik urte luzez igorritako mezuen aurrean estatuak erakutsitako inobilismoaren ondorioz sortu baita egoera hau. Boterea daukatenek errealitatea ukatu dutelako.

Hau guztia esanda, ezin dut ulertu nola aldarrikapen baten aurrean, ahotsa eskatzearen aurrean, ilegala dela esatearekin konformatzen den jendea. Nire amonak nire adina zuenean ez zituen eskubide eta askatasun asko ditut nik, legitimoak zirelako eta horregatik direlako gaur egun sistemaren parte. Hala izan ezean, nik neronek ezingo nukeen gaur egiten dudana ezertxo ere egin. Eta tristea da, baina legalitatearen argudioa konpartitzen dutenen gehiengoak ere ez.



Asier Colina

## Luze eta borobil

**Kontxan denboraldi osoan izandako arraunketari eutsi zioten, hotz, eta bigarren igandeko baldintza zailetan asko lagundu zien horrek.**

**K**ontxako bigarren igandean, irteera ikaragarria egin zuen Orioko txalupak. Lehen palada horiei erreferentzia eginez hasiko dut, KARKAKO lagunak eskatu didaten iritzi artikulua hau. *Entxufatuta* irten ziren mutilak. Bazekiten ezer ez zutela galtzeko eta, lana ondo eginez gero, zerua irabazteko aukerak bazirela. Irteera eder horri esker, badiatik ateratzean, estropada buruagatik borrokan ibiltzea lortu zuten.

Bigarren puntu esanguratsua, arraunketa. Kontxan denboraldi osoan izan duten arraunketari eutsi zioten, hotz, eta bigarren igandeko itsas baldintza zailetan asko lagundu zien horrek. Ikaragarria izan zen mutilen lana. Estropalariak *presarik gabe* ziruditen arraunean, palada bakoitzari behar den denbora emanez. Estropada eremuko leku zikin eta nahasi askotan, luze eta borobil egin zuten arraunean. Gorai-patzekoa, nire ustez, aurrekaldeko bost arraunlarien lana.

Beste puntua, patroia. Gorka Aranberri. Asko hitz egin da zarauztarraz azken bizpahiru asteetan, eta ez noa ezer berria esatera. Soilik goraiatu, momentu oro dakiela non dagoen, zertan dabilen, eta zer eskatu behar duen. Telebistan ondo entzun dira bere hitzak. Olatua brankaz datorrenean, arraunean *luze* egiteko eskatzen dio tripulazioari, txalupa aireratu aurretik. Estropada irabazteko aukerak azaltzen direnean, *mutilak, sinistu. Guria dek*. Konfiantza izugarria transmititzen du Gorkak.

Dena den, olatuak ez ditu patroiak bakarrik hartzen. Igande historikoan, arraunlariak eredugarri gogortu zioten txalupa Gorkari, honek ontzia errazago gobernatu ahal izateko.

Laugarren eta azken puntua, Jon Salsamendi. Bera da guzti honen *errudun* nagusia. Hau dena azaroan hasi zen. Zorionak bihotzez Joni, estropalariari, zuzendaritzari, herriari eta oriotar zale guztiei.

Goza dezagun Kontxako Bandera historiko honen zapore ederra, baina ez gaitzala itsutu eta gure bidetik atera. Jarrai dezagun aurrerantzean ere anbizioa eta umiltasuna uztartzen.



# «Bandera gosea zegoen tostartean, pisuzko garaipen bat behar genuen»

**Ibon Huegun**

Orio Arraunketa Elkarteko presidentea

Urte berean Kontxako bi bandera irabazi dituen lehen presidentea da Ibon Huegun, aurtengo garaipenaz gain 1939. urteko Donostiako Estropada palmaresean sartu eta gero.

## JON AGIRRESAROBÉ

Goizeko zazpitan egin dugu hitzordua. Ez dio familiari eta lanari ordurik kendu nahi. Elkarrizketa amaitu, umeak ikastolara eraman eta lanera joango da. Apal-apal baina umore onez hitz egin digu, goizeko zazpitan.

### **Zorion mezuetan izango da bakarren bat kontatzekoa.**

Denak erantzuteko astirik hartu ezinda nabil. Modu honetan irabaztea handia izan da. Horrez gain, irudi ederrak utzi ditu bigarren igandeak, arrauna jarraitzen ez duenak ere gozatu egin du. Gutxien espero dugun herrian ere estropada ikusten egon dira. Askok jasoko ditut oroitzapenetan: lagunak, kanpoan bizi diren oriotarrenak, Euskal Herri osoko zaleak... Lorenek Realeko kirol zuzendariak deitu zidan estropada eta Realaren partidua amaitu berritan, ordu biak eta erdiak aldera. Agirretxek eta Iñigo Martinezek ere zorindu ninduten, Mirotza Saria dute biek.

### **Oriotarrok kamioikada argazki jaso dugu mugikorrean.**

### **Igandeko zein irudirekin gelditzen zara?**

Luzea baina polita izan zen bigarren igandea, argazki asko utzi zituen: taldeak uretaratu zirenekoa, estropadako irudiak, arranplako eromena, bazkaria, plazako harrera... Arraunlarien poz aurpegiarekin gelditzen naiz, beharbada. Lau arraunlari bakarrik ziren Kontxan irabaziak, bandera gosea zegoen tostartean.

Halere, asteko irudi ederrenetakoa ostiralekoa izan zen. Guk ez genekien ezer, ostiral goizean *whatsapp* mezua bidali zidan Jonek, goizeko hamarrak eta erdiak aldera. Koadrilara ere bidali zuela ikusi nuenean nik ere mezua zabaldu nuen.

### **Arraunlari batek jaitziera urtean ere herritarren babesa sentitu zutela aipatu du garaipenaren ostean. Castroko**

**arranpalako argazkia errekupeatu dugu, trainerua bigarren mailara jaitsi berritan han dago Ibon Huegun zale gutxien artean mutilak animatzen. Hortik gutxira hartu zenuen presidente kargua.**

Betidanik izan gara zaleak. Ordurako hasiak ginen lanean eta irailean zuzendaritzan sartzea erabaki genuen. Sei urte-tan denetik pasa da. Lehen urtean ARC1 ligan estropada gutxiak irabazi genituen, baina ez genuen gozatu, igoera lortzeko presio handia zegoen. Behin maila berreskuratuta bi-hiru urte nahiko onak izan ziren. Baina saria falta zitzaigula sentitzen genuen. Pisuzko garaipenak behar genituen: Euskadiko edo Espainiako Txapelketa, Zarauzko edo Kontxako bandera. Urteen poderioz bandera gosea zama bihurtzen joan da.

### **Banderak zertan aldatuko du Orio Arraunketa Elkartea?**

Ez dugu iparra galduko. Aurten ikusi dugu bateragarriak direla gure bi helburuak: banderen borrokan ibiltzea eta etxeko gazteak lehen ontzian izatea. Iaz bigarren traineruan ari ziren lau arraunlari lehen taldean aritu dira. Hori bai, garaipen honek lagundu dezala inertzia positiboak sortzen. Kontxa lortuta ez da mundua bukatzen. Baditugu gaur arte lortu gabeko helburuak: neskekin bandera garrantzitsuak irabaztea eta mutilekin Eusko Label liga eskuratzea, esaterako. Baina burua galdu gabe beti.

### **Garaipenaz ari gara etengabe. Beste bi traineruen urtea gorabeheratsuagoa izan da.**

Neskena ez da urte txarra izan. Denboraldiaren zehar San Juan eta Hibaika gehiago izan dira, baina zenbait estropadetan gertu izan dira gureak. Kontxara ilusioz joan gara, baina



Zarauzko bandera irabazi berrikan udaletxean egindako argazkia. Gustura dago presidentea. JOXEJU OLASAGASTI

“Ez dugu iparra galduko. Aurten ikusi dugu bateragarriak direla gure bi helburuak: banderen borrokan ibiltzea eta herriko gazteak lehen ontzian izatea.”

ez da nesken urte osoko lanaren erakusgarri izan, bigarren igandea batik bat. Ilusioa daukagu zerbait polita egiteko, aurtan ez da posible izan, baina ez saiatu ez direlako. Mutilen bigarren traineruak maila galdu du, baina ez dugu helburua aldatuko. Formazio taldea da, estrategikoa da guretzat, gure begia zubi lanean dago.

**Ireki da beda. Hasi da arraunlarien eta entrenatzaileen dantza. Denboraldi ona egin ostean Lorenek eta Aperribayk urduri pasa dute uda, jokalaria joango beldurrez. Udazkenari beldurrik ba al diozu?**

Behin Kontxa pasata hizketan ari gara Salsamendirekin, Errastirekin eta Zabaletarekin. Entrenatzaileak eta arraunlariak lasai ikusten ditut. Deskantsatu dezatela. Mugimendu asko izaten da arraun munduan, baina lasai gaude.

**Oker egongo naiz agian, zuzendaritza kideok entrenatzaileen esku uzten duzue taldearen kudeaketa?**

Asteartero biltzen gara eta taldean lantzen dira gai guztiak: harrobiaren jarraipena, lehen taldeen egoera, eremuen, entrenamenduen eta estropaden azpiegitura, sponsor eta babesleen jarraipena, arroparen kudeaketa... Horiek dira gure lanak. Kirol kudeaketan konfiantza osoa dugu entrenatzaileengan, lan esparruak errespetatu behar dira.

**Sei urte pasa dira zuzendaritzan sartu zinetenetik. Nekea sumatzen al duzu?**

Sei urte asko dira eta beste bi denboraldi gelditzen zaizkigu. Karga da, baina garaipen hauekin asko leuntzen da nekea. Boluntarioak gara, baina erabaki handiak hartu behar ditugu, eta buelta asko ematen dizkiogu erabaki bakoitzari.









**ORIO!**

Argazkia: LUISBIXKI



# EUSKARAZ GAZTE 24. LITERATUR LEHIAKETA orioala

- 1 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean.
- 2 Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3 Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
- 4 Lehiaketan parte hartzeko, oriotarra edo aiarra izan behar da edo, bestela, Orion edo Aian bizi, eta 16 urte beteta izan behar dira.
- 5 Lanen luzera librea izango da.
- 6 Epaimahaiak gaiaren gertutasuna baloratuko du.
- 7 Lehiaketak bi atal izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
- 8 Gaia librea izango da.
- 9 Lanak aurkezteko era:  
Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.  
Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbide elektronikoa eta telefonoa.
- 10 Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso atal bakoitzean.
- 11 Sariak hauek izango dira:  
**Ipuinen atala**  
1. saria: 300 euro  
2. saria: 200 euro  
3. saria: 150 euro  
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa  
**Bertso edo olerkien atala**  
1. saria: 300 euro  
2. saria: 200 euro  
3. saria: 150 euro  
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
- 12 Epaimahaia. Epaimahaia Orioko Udaleko euskara teknikariak, Aiako kultur teknikariak eta KARKARA aldizkariako kide batek osatuko dute.  
Epaimahaiak hutsik utz ditzake sariak.
- 13 Lanak aurkezteko tokia eta epea.  
Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztuko dira.  
**2017ko azaroaren 16a** izango da horretarako azken eguna.
- 14 Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.



Euskaraz  
bizi-bizi



J. LIZARRALDE

# Garaipen historikoa Kontxako badian

Aurten, hamar urte betetzera zihoazen txalupa horiak Kontxa irabazten ez zuela; garaipen batetik besterako lehorterik handiena izan da. Irailaren 10ean, ordea, historia era historikoan iraulita irabazi zuen Oriok bere palmareseko hogeita hamabigarren Kontxako Bandera.



## ERREPORTAJEA



## TESTUA: I. GAITON

Aurreneko igandean galdutako segundoak, haize ufada zakarrak, olatu handi eta nahasiak... Badira nahikoa osagai Orioko txalupak Kontxan lortutako garaipena luzaroan gogoratzeko. Estropalariek lehen igandean *marka giroa* izan bazuten, baldintzak beste muturrekoak ziren bigarrenetan.

*Txalupa nibelatuta ekartzen badeu, gainetik pasako dizkiu!*, entzun daiteke Jon Salsamendi entrenatzailea larunbateko entrenamenduan, *watxapean* tximista baino azkarrago zabaldu zen bideo batean. Trainerua olatu gainean ikusten da, poparean oso fin, abiada bizian. Puntu hori baino pixka bat barrurago hartu zuten, bigarren igandean, bandera ira-

bazten lagundu zien olatu aldia.

Oriotar askok bezala, Haritz Larburu herritarrek Aquarium ondotik ikusi zuen, nerbioek akabatu beharrean, trainerua olatu aldi historikoan irristaka: *Aurreneko olatua gu baino atzeraxeago hartu zuten, segidan bestea, bestea...* Bermeoko txaluparekiko tartea hazten zihoala ikusita, zorutzen hasi zen. *Urdaibairi 21 segundo ateratzen genizkiola entzutean, ikaragarria izan zen emozioa, sinestezina*. Korrika jaitsi zituen Aquariumeko eskailera arranplara bidean, beste oriotar askoren korrika saio, besarkada, garaipen oihu eta malko artean. KARKARAK egindako *Galerna Horia* bideoak ondo islatzen du momentu horretako zoramena. Inork ikusi nahi badu, Youtuben dago zintzilik.



LUISBIXKI

“Badira nahikoa osagai,  
Orioko txalupak Kontxan  
lortutako garaipena luzaroan  
gogoratzeko.”

### Arranpla horia

Aspaldi ez bezala, horiz jantzi zen irailaren 10ean Donostiako arranpla. Egun horretako argazkietan ageri diren arraunzale gazteetako batzuekin batera, Haritzek Indar Horia *peña* sortu zuen iaz trainerua estropada guztietan animatzeko. *Momentu txarretan hor egon baginen, onetan, are gusturago!* Bigarren igandean, bainujantzia zeramangaltza luzeen azpitik, *irabazi edo ez, uretara sartu eta estropalariak animatzeko.*

Arraunlariak 32. Kontxako Bandera txalupan hartuta hurbildu zirenean, Haritz izan zen mutilak besarkatu zituen lehen zalea, gorputza gerrirainoko uretan zuela. Ez zen, ordea, putzutara sartu zen oriotar bakarra izan. Orain dela urte asko egindako promesa betetzeko, ez zuten beste erremediorik izan Maria Eugenia Etxeberriak eta bere lagun min batek. *Iñigo semea arraunean hasi zenean, oso gazte, inoiz Kontxa irabazten bazuen arranplan uretara sartuko ginela hitzeman genuen.* Kamiseta hori eta guzti blaitu zuten gorputz guztian bor-bor zuten poza, lorpena ospatzeko.

Arranplako giroa ikaragarria izan zen. 16 eta 20 urte bitarteko oriotar gazte asko bildu ziren, zoratzen. Jenerazio horretako neska mutilak ume kozkorrak ziren Oriok azken Kontxa irabazi zuenean. Goxoki gehiago janda ospatuko zuten, ziurrenik, hogeita hamaikagarrena; zerbeza eta sagardo botilak eskuan, aurten beste tankera bat zeukan beren garai-pen festak.

Arranplako bazter batetik, harrituta begiratzen zieten gazte hauen kantuei, builei eta algarei Maren Gonzalez de Txabarrik eta Daniela Bernedok. Beren bederatzi urterekin, ondo ulertzen zuten ospatzen zenaren arrazoia, baina txundituta ziruditen, euforia eta jendearen zoramenaren intentsitatearekin. Auskalo Orioren 33. Kontxako Bandera nola ospatuko duten bi neska motzek; piruleta bana eskuan dute-la, edo tabernetan, bafleren baten azpian dantzatzeko.

### Estropadak ezin ikusi

Oriotar askori gertatzen zaie: estropadak ikusi nahi, baina ezin, nerbioengatik. Bigarren igandean, trainerua uretaratu aurretik semea agurtu eta Boulevard aldera joan zen Maria Eugenia, denbora egitera. Hortik pixkatera, orduagatik estropada bukatuko zela pentsatuta, portura itzuli zen. Balkoi batetik egindako builak eman zion garaipenaren berri: Oriorena da bandera! Sinetsi ezinda egin zuen korrika arranplaraino.

Arrazoi guztiz ezberdinengatik geratu zen estropada ikusi gabe Joxe Mari Olasagasti, azken hogeita hamar urtetan Donostiako zitan kale egin ez duen herritarra. Esloveniatik bueltan zetorren egun horretan, Javier Puertasekin batera, honi aulki mugikorreko mundiala jokatzera lagundu ostean. Hauxe da emailaz KARKARARI egindako kronika, osorik.

*Frankfurteko aireportuan, wifia harrapatu nahian. Estropada bai, ez, bai... Halako batean, neskak erlojupean... 11:20ean hegazkinera, Frankfurt-Bilbo. Beraz, konexiorik ez. Kontxa jokatzeko, eta gu zeruan, ezer jakin gabe. Burua Donos-*

## ERREPORTAJEA



KARKARA



KARKARA

*tian... Bilbon lur hartu, 13:10ean, pistan telefonoa piztu eta 'klink', kobertura. Ostia, 14 watxap mezu! Hau ez da normala. Bat ireki eta AUPA ORIO!, besteak ere bai, eta hurrengoak... Baina zer pasa da? Halako batean: kristorena, Urdaibairi 24 segundo. Orduantxe INFARTOA! Sinestezina! Emozioarekin hegazkineko eserlekuko gerrikoa ezin askatu, eta beste bidaia-riak joanda, Javier eta biok bakarrik abioi barruan, telefonoa-ri begira... Ekipajea jasotzera jaitsi, eta zintan aurreneko maleta gurea: Aupa Orio!, nik marrua. Jende guztia harrituta guri begira...*

### Umetako ametsa

*15 urtetik gora daramatza Iñigok, Josu Indo eta Unai Etxeberriarekin batera, bizia arraunari emanda, dio Maria Eugeniak. Emaizta eskaskeko denboraldiak bizi izan dituzte tartetan, oso gogorak. Aurtengo Kontxan, halako batean, lortu dute trapu preziatua astintzea.*

*Kontxa irabazitakoan, poza ikaragarria izaten da. Kristorena. Baina euforia kabiezin horren atzean, lasaitasun tankerako zerbaitek hartzen dizu burua. Nolabait, arraunean maila gorenera iritsi zarela bermatzen dizun ziurtagiria da Kontxa. Egia bezain triste da hori. Herriko estropalari ohi bati jasotako hitzak dira, Karkara hau inprentatik atera baino astebe- te lehenago.*

Haritz Larburuk lagun minak ditu Iñigo Mujika eta Josu Indo. Ibon Arruti ere bai. *Gaztetan, ia kuadrilla erdiak egiten zuen arraunean, nabarmendu du ironiaz: Julen Agirre, Josu Iribar, Iñaki Verhegge, Gorka Eizmendi, Aitor Olaskoaga, Iñaki Diaz patroia... Urteekin, tostartetik ateratzen joan dira gehienak. Kosta da, baina halako batean, badugu Kontxako*

“Kosta da, baina halako batean, badugu Kontxako Bandera bat kuadrillan!”

*H. Larburu*

“Mutilen parean egoteko emakumeek demostratu behar izan zutena, gehiegizkoa izan zen.”

*I. Gaztañazpi*





KARKARA



EGIGUREN ARGAZKIAK

*Bandera bat kuadrillan! Lagunak umetako ametsa betetzen ikusita, Haritzek ere berea egi bihurtu duela dirudi. Ez da gutxiagorako.*

### **Parean egoteko, arrisku handia**

Gizonezkoen estropada ikusgarria izan bazen, emakumezkoenari izenondoak jartzeko kamioiaren bila joan beharko genuke: historikoa, antologikoa, arriskutsua, ikaragarria, bortitza, beldurgarria... Donostiako udaletxean egiten den kale zozketaren aurretik, ondo kosta zen estropada jokatzeko erabakia hartzea, eta neskak mutilak baino baldintza txarragoetan lehiatu ziren erlojupeko formatuan. San Juango txalupak eraman zuen bandera etxera. Oriotarrak bosgarren izan ziren sailkapen orokorrean.

Estropadako baldintzak kontuan hartuz, emakumeek maila oso ona eman zuten uretan. Hori uste du Ibon Gaztañazpi kazetari eta arraunlari ohiak. Hala ere kritikoa da hartu ziren erabaki batzuekin: *Itsas kultura maite dugunoi, itsasoa-ri errespetua izan behar zaiola erakutsi digute betidanik. Arrantzaleek, surf-lariak eta arraunlari izan garenok, ondo dakigu hori. Beldurrak muturra sartzen duenean, akabo, soberan daude beste argumentu guztiak. Estropalari eta entrena-tzaileek gero aitortu bezala, ikara pasa zuten uretan. Nire ustez, estropada jokatzeko erabakia hartu zen unean, goizeko 10:30ak aldean, baldintzak ez ziren arraunerako egokiak, ez neskentzat eta ez mutilentzat. Ezin izan zituzten baliza denak jarri, atera kontuak. Gero, 12.00etan bai, baldintzak hobera egin zuten, eta baziren estropada jokatzeko modukoak.*

Ibonen ustez, emakumezkoen estropadak irudi ikusgarriak utzi ditu historiarako, baina arrisku gehiegi hartu ziren.

*Donostiarra txalupako neskek ia istripua izan zuen Santa Klara-rako arroken aurka. Zer gertatuko zen atzetik beste olatu bat etorri bazitzaien? Nire ustez, mutilen parean egoteko, emakumeek demostratu behar izan zutena gehiegizkoa izan zen. Hartu ziren erabakiak errespetatu arren, ez ditut konpartitzen.*

### **Ezeren gainetik, kiroltasuna**

Aurtengo Kontxak oriotarroi harro sentitzeko arrazoi asko eskaini badizkigu ere, horien artean bada derrigor nabarmendu beharreko bat. Orioko nesken txalupak San Juan gainean zuen balizara iristear zirela, eta kiroltasun handiarekin, zia boga aurretik hartzen utzi zieten, istriborrera baztertuta. Gero, Itziar Olasagastik *Astearteko joaldian* kontatu zigun bezala, itzulerako luzean olatu pare bat utzi zituzten nahita hartu gabe, bi txalupak erdi trabeska zebiltzala pasaitarrak ez jotzeagatik.

Historiak ondo jasotzen ditu banderak palmaresetan, baina benetako handitasuna, horrelako keinuek ere ematen diote talde bati.

### **Azken joaldia**

Bigarren igandeko olatu zakarrek kolore guztietako txalupak bezala, aurtengo Kontxako estropadak gogor astindu ditu oriotarren emozioak. Inoiz ez du denen gustura euririk egiten, eta itsas baldintzek, kale zozketek edo haize aldaketek ere, ez dute behin ere denen alde berdin jotatuko. Zer egingo diogu ba. Halakoxea da arrauna, eta ditxosozkoa Kontxako estropada; plater berean tradizioa, morboa, goi mailako kirola eta zoria nahasten dituen errezeta zoragarria.

# PUBLIZITATEA



**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**OREKA FISIOTERAPIA**

*Tendinitisak  
Lumbalgia  
Artrosia  
Zefaleak*

Masaje terapeutikoa,  
bentosa, akupuntura,  
eskuzko terapia,  
osteopatia

**943 13 35 37**  
Aritzaga kalea, 11 behe



**ORIA hartz klinika**

Amantziaga kalea, 63 behe  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45

Oria Hartz Klinikak **ORTODONTIZIA** zerbitzu berritu jarri du martean.  
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre erorkizunean sar daitezkeen arazoak.

**ITZIAR**

*kirolak*

Tel. 943 83 31 03

**KAIOA**

Arropa  
Oinetakoak  
Osagarriak

Arantzale kalea, 1  
T 943 84 885  
ORIO (Gipuzkoa)

Zaparrak kalea, 16  
15 Paratoko kalearekin iduriz  
T 943 021 034  
ZARAUZ (Gipuzkoa)

Erbera kalea, 10  
T 943 543 007  
ZUMAIA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es



**ELEKTRIZITATEA**  
Ander Exposito  
943 831 774  
600 856 728  
anderexpoelektrizitatea@gmail.com



**EKILORE GARBIKETAK**

626417841  
ekilore@outlook.es

ile apaindegia

**MARIJO**

*Neska eta mutilentzat*

Eusko Gudari, 8 - behe  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**URAITZ**

*lurrindegia*  
*paintz osagarriak*

Endara 13 Tfn: 943 83 18 97

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA



Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

T: 943 835 980 W: www.2gurpil.com E: bigurpil@hotmail.com

ETXEKO BEREZITASUNAK  
ARRAIN ZOPA  
PARRILA

**BODEGON SARASUA**  
ERRETTIGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,  
txekorra, txorizo, krokettek...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



**INDO**

Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4  
Tel. 943 894 024  
Fax. 943 130 144  
20809 AIA - ORIO





Alarguna hiru lore horiak jartzen. X. IRIONDO

Katalunia, bide on!. I. ITURAIN

## Hiru lore hori irailean

### Oroimenaren kutxa

Orioko arrantza-bapore gehienek santu-izena izan dute. Ohitura horretatik kanpo gelditu direnetako bat Montserrat da. Nondik ote datorkio emakume izen hori Orioko baporeari? Erantzunak 1936ra garamatza. Urte hartako irailean, gerra hasita, faxistak herrian sartu aurretik, jende askok ospa egin zuen hemendik. Luis Trekuren familiak Katalunia aldera jo zuen, beste euskaldun askok bezala. Bartzelonako Montserrat-eko santutegian urte eta erdi inguru pasatu zuten, gerra garaiko denboraldi patxadatsu bakarra. Han zirela jaio zen neskatxa bat, bosgarrena. Mari Carmen da, baina katalana deitzen diote. Haren ahizpa Rafaela Genova ondo oroitzen zen ordukoaz: *Montserrataren ondo egon ginen euskaldunak: emakumeak lanean hasi ziren, bat sukaldean, bestea garbiketean...; arropa ekarri ziguten, eskola eman...* 1938an bonbardaketak hasi zirenean, Frantzia aldera jo behar izan zuten. Gerra bukatu eta berriro etxeratuta, arrantzarako barku berria egin zutenean, Montserrateko egonaldi gogoan, izen hori eman zioten, Kataluniari eta katalanei esker oneko aitortpena eginez.

Orioko familia hori bezala, Katalunian ibili zen euskaldunon Lehendakari Jose Antonio Agirre gerrako azken hilabeteetan. Katalanen President-arekin batera pasatu zituen Pirinioak, faxisten hatzaparretatik ihesi. Handik hilabete gutxira, Gestapok Lluís Companys Frantziara atxilotu eta Hendaian frankistei entregatu zien. Frankistek torturatu eta fusilatu egin zuten Montjuic-en. Hauek izan ziren haren azken hitzak: *Gizon zintzo bat hiltzen ari zarete. Kataluniagatik!*

Katalanen Presidenta fusilatu zutenetik 77 urte pasatu direnean, katalanak tinko ari dira haien askatasun nazionalerako bidea urratzen. Duintasun osoz, bide baketsutik, politikari euskaldun batzuek ez duten ausardia eta besteek azaltzen ez duten inteligentzia politikoa erakutsiz.

Katalanen askatasunerako bideari irrikaz erreparatzen

diogunok 2017ko irailean egunero izan ditugu emozio handiak. Katalanen bidean ez dugu marra gorriarik onartzen. Eta jakina, marra gorriak kenduta, zer bihurtzen da senyera? Bandera hori-horia –hobe, umore pixka batez hartzea–.

Bandera horia aipatuta, oriotarrok ere emozio handiak izan genituen irailaren 10ean. Egun hartan mirotzek hegan egin zuten berriz, itsasoa lagun hartuta, hiru olatu erraldoirengainean garaipena lortu zuten. Gure arraunlariak Donostiako 32. bandera irabazi zuten, iaz omen zeuzkaten 30etik 32ra pasatuz urte bakar batean, errekor historiko polita jarri. Oroimen historikoa aintzat hartuta, bada gai bat, aztertzeke modukoa, 1939ko banderari dagokionez: ea ez ote dituen soberan idatzita dauzkan hitzak.

Bigarren estropada-egunean, arratsaldean, Donostiako Polloe kanposantuan emakume batek hiru lore hori ipini zituen hilobian, hiru arrosa. Emakumea Itziar Arana da, alarguna; senarrari laga zizkion hiru lore horiak, Xabier Iriondo zenari. Gizona 2012an hil zen. 1983ko irailaren 18an Xabierrek beste horrenbeste egi zuen: Polloera joan eta bere aita-ren hilobian hiru lore hori utzi, aurreko urtean hildako aitari, arraunlari oriotarrek irabazitako 25. bandera aita zenarekin ospatzeko; gero, 1992, 96, 97, 98, 2000 eta 2007an egin zuen bezalaxe. Juanito Iriondo Beizamakoa zen, baina oriozale amorratua; haren seme Xabier, donostiarra. Emozioak, belaunaldiz belaunaldi, hilobiraino!

Oribarzarreko hondartzatik Zarauzko kanpinera igotzen den aldaparen iagoian, zuhaitz batean irudi eder bat dago tailatuta, handik pasatzen diren erromesek jarria, eta bi hitz: Bide on! Horixe opa dizuet katalanoi: hiru olatu handi azken txanpan, helmugara onik iristeko; hiru lore hori, eta hiru hitz: Bide on, asCATasunera!

IÑAKI ITURAIN



## ARGAZKI MUNDIALA



JOXEMARI OLASAGASTI

## Errefuxiatuen aldeko danbor hotsak

**I**railaren 23an, larunbatean, egin zituzten Gazte Fesak Orioko gazteek. Egun osoko egitaraua osatu zuten eta ez ziren falta izan urteroko danborrada, paella lehiaketa eta elektrotzaranga.

Piraten danborradarekin eman zioten hasiera egunari; errefuxiatuen alde egin zuten martxa. *Horma* bat eraman zuten Etxeluzetik plazara, Europako mugak irudikatzen zituen horma, eta danborra joaz Europak errefuxiatuei jarri dien harresia eraitsi zuten.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.

# Surflaria eta paradisua

## Kritika Surflaria eta paradisua

**Liburua,** Iñigo Urdinagak argitaratu du, autoekoiztua.



**E**rraz irakurtzeko liburua osatu du Urdinagak. Ari-na izanagatik, baina, ez da fundamentu gabea. Surfa urruti samar duen literaturzaleak gozatzekoa; baita literatura berea egiten ez duen surfzaleak ere.

Poza galanta hartu dut surfaz euskaraz irakurtzean. Poza, ez baitut sekula ulertu euskaraz baziren izen haiek zergatik surfariek erdaraz birsortu nahi izan dituzten. Zorionez, ez da hondartza grisik bere hitzetan. Bejondeizula, Iñigo!

Ez nau epel utzi. Parrez lehertu naiz, tarteka. Nostalgia ere sentitu dut, Orioko hondartza zaharraren postalak ekarri dizkidanean burura. Harritu nau surf mundua ezagutu ez eta harekiko jakin mina handitu zaidanean. Eta hainbatetan amorrarazi ere egin nau. Egilea ez baitabil epelkerietan eta bere iritzia ere eman baitu, eta batzuetan ez da bat etorri nire-arekin. Liburuak lortu du tertuliarako gogo piztea, bai niregan eta baita nire inguruan ere.

Paradisua urruti dugula gogorarazi badigu ere, irakurraldia merezi dute ziprintin gazi hauek.

**GARBIÑE MANTEROLA**

**Katu Moria**  
ORIGINALIZAZIO BUREA  
ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO  
tel. 943 11 66 99  
Larrialdia: 668 89 11 20  
www.katuhoria.com

**BODEGAS Gailur**  
Granit BARRIO de ORIO  
Tel./Fax 943 83 91 88  
www.bodegasgailur.com  
Arantxa Errica  
**ZUDUGARAI**  
Galeria Txakolina  
Tel. 943 83 03 88  
Fax 943 83 94 88  
bukalazudugarai@nabak.net  
www.bukalazudugarai.com

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK  
**ROSA**  
GARBIÑE ARRILLAGA  
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43  
www.faz3000.com/ROSAARRILLAGA  
10% DESKONTUA FAMILIA UGARJENTZAKO

**Garbiñe Arregi**  
Moda de  
osagarriak  
Hortako jantziak,  
635 716 263  
jantziak eta osagarriak zuretzat!

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa  
**argine**  
35eko deskontua familia egarriei txartelarekin  
Eusko Gudari, 9 - Orio  
943 134 889 argine/jantziak

**Zaragueta Herri Eskola Orio**  
telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



# PUBLIZITATEA



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL/F - 943 572 083  
FAX - 943 571 190  
Lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO  
ABESLARI, 1  
20810 ORIO



**AIRIDATZA** modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./ Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO



"KIROLA  
sarentu sozializatzailea"

**KARELA**  
kiroldegia

**ARGAZKI  
LEHIAKETA**

"Kiroldegiko bazkide bakoitzak, har ezazu parte eta irabazi 200 euroko bazkide"

kirol zerbitzuak **BXPport** www.bxpport.es 943 89 44 28



**Xapa**  
zapataria

eman beste aukera bat gure  
zapata eta onargarriak

Herriko plaza. Orio



**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO  
[ sarrera Arrazale kaleak ]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com



**PERTSIANAK**

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,  
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu  
konpromisorik gabe

Lan txukuna  
eta merkea

Tfnoor: 943 83 59 00



**MENDIZABAL**  
AROTEGIA

Nearriko arnairak  
eta egurrak

943 831 175  
645 708 491  
mendizabal.net

Altzari bideo  
Beti-Ajai etxea  
20810 Aia-Orio



**JON ANDER MAIZA AROZTEGIA**

LEIHO ISOLATZAILEAK  
PVC - ALUMINIOA

690 99 39 32 / 943 30 07 88

ventanasmaiza@gmail.com  
www.carpinteriamaiza.com  
Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORIO



**ZINKU**

Igeltseritza orokorra  
Etseko ezei forma mota guztia  
tuturak, bainu gela, igeltsera...

Ander Zinkunegui  
667 740 279



**BOGA BOGA**

Orio - Hondartza Bidea  
943 89 21 31

Eguneko menua  
eta plater konbinatuak



**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GORDAK

Artzaga 8, 20810 Orio  
Tel: 943 13 15 17



**K.U.K.U.A.R.R.I**  
ELEKTRIZTATEA

Tel: 943 100 181  
Mobila 640 281 363  
Zigordia, 52 - Behe C  
20000 Zarautz  
kukuuarri@kukuuarri.com





## “Txakurrek sentimenduak dauz- kate eta ondo tratatu behar dira”

### Izaskun Ibarguren

Txakur zaintzailea

Izaskun Ibarguren *Manterola* txakur zaindegia dauka Laurgainen. Eskolara gonbidatu genuen elkarrizketa egiteko.

#### **Nola bururatu zitzaizun Aian txakurtegi bat jartzea?**

Duela 25 urte langabezian gelditu nintzenean, niri animaliak asko gustatzen zaizkidanez, gurasoen baserrian negozio hori jartzea pentsatu nuen.

#### **Zer zerbitzu eskaintzen dituzue?**

Denboraldi baterako zakurrak hartu eta edukitzen ditugu. Etxeetaraino ere joaten gara jasotzera eta bueltatzera. Egoitzan zakurrak zaindu eta sendatu ere egiten ditugu.

#### **Zenbat zakur edukitzen dituzue hilabete batean?**

Gorabehera handiak daude urte sasoiaren arabera; lan gehiena udaran egiten dugu, opor garaian.

#### **Zakurrak normalean zintzo portatzen al dira?**

Denetik egoten da: batzuk lasaiak dira, beste batzuk, berriz, bihurrixegoak, karakterraren arabera ere izaten da.

#### **Guztien izenak gogoratzen al dituzu?**

Askok ahalegintzen gara, hori oso inportantea baita zakurrari gertuko tratua emateko eta harreman egokia lortzeko.

#### **Zakurrek non egiten dute lo?**

Etxe barruan egiten dute lo. Baserriko bi pisutan logela handiak eta txikiak ditu-

gu eta kaiolak ere bai, den-denak garbi eta txukun.

#### **Nola pasatzen dute zakurrek eguna?**

Ahal den guztietan paseatzera ateratzen ditugu, kanpoan argia baldin badago. Janaria bitan ematen zaie, eta tartean lasai egoteko denbora ere izaten dute. Normalean iluntzeko 8:30tarako getetan jasotzen dira.

#### **Zuri zein zakur mota gustatzen zaizu eta zein ez?**

Denak gustatzen zaizkit, nahiz eta arraza garbikoak ez izan.

#### **Zenbat egun pasatzen dituzte zakurrek ostatuan?**

Denetik dago, egun bakarra edo asteburua pasatzen dutenak, hilabeteak igarotzen dituztenak eta baita eta urteak daramatzatenak ere, adibidez, kalean lagatakoak. Horiek hartuko dituzten familiak bilatzen saiatzen gara, baina ez bada inor prest azaltzen, gurean gelditzen dira.

#### **Zerbait adierazi nahi duzu galdetu ez dizuguna?**

Etxean zakurrek duzuenoi esan, beste edozein motako animaliek bezalaxe, sentimenduak dauzkatela eta ondo zaindu eta tratatu behar direla. Bestalde, txakur bat kalean abandonatuta ikusiz gero, gogoratu gaur egun toki asko daudela jasotzeko.



Ibai Beorlegi

## Karkara eta Orio

**G**aur ere kritika egiteko momentua iritsi zaigu, gaurkoan KARKARARI buruz kexatu nahiko nuke dena Oriori buruz egitea ez zaidalako oso juxtua iruditzen. Guri etxera hilero iristen zaigun aldizkaria irakurtzen dut, eta ez zait gustatzen orri guztiak Oriori buruz ateratzea. Nik KARKARA hartzen dudanean, Aiari buruzko orriak bilatzen hasten naiz eta irakurtzen bukatzen dudanean konturatzen naiz, Aiari buruz ateratzen den bakararra podologoaren iragarkia dela eta niri hori ez zait axola. Aiako festak izan ondoren KARKARAN hiru orri besterik ez ziren atera aldizkarian Aiako festei buruz. Oriok Kontxa irabazi zuenean berriz, argazki piloak egon ziren aldizkarian.

Egia esan, kritika hau alperrik egin dudala pentsatzen hasia naiz. Baino kexatzeko ordaindu behar ez denez, eta kexatzeko eskubidea daukadanez, kexatzen jarraituko dut. Agian, nik ez dakizkidan pisuzko arrazoiak daude hau guztia horrela izateko. Beraz, norbaitek azaldu nahi badizkit prest nago entzuteko.

**Gaur ere kritika egiteko momentua iritsi zaigu.**

# Turismo eskaintza Orion



9.258 bisitari izan ditu Orioko Turismo Bulegoak urtea hasi zenetik. KARKARA

Orioko turismo bulegoak hainbat aukera eskaintzen dizkie bisitariei herriaz gozatzeko: Oria ibiaia, mendia, gastronomia, hondartza, Donejakue bidea eta kultura.

Oria ibaiari dagokionez, Begi Bistan enpresak uretako jarduerak eskaintzen ditu Arraunetxan: arrauna, kayak, SUP, *big SUP*, *raft* eta Oria ibaiaren jai-tsiera. Ur topaketak eta bisita kulturalak ere antolatzen dituzte udan. Uretan egiteko beste irteerak ere antolatzen ditu Begi Bistanek, Txitxardinaren ibaia –kayak jai-tsiera Oria ibaian–, Arraunlari egun batez –egun erdiko abentura 3 arraun-ontzi desberdinetan– eta Euskadi eta arrauna –Arraunetxera eta Satxotasagardotegira bisita gidatuak– izenekoak.

Turismo bulegoan mendi ibilaldien eskuorriak dituzte. Jende asko etorritzen da Oriora mendi ibilaldiak egitera.

Hondartzak ere jende mordoa erakartzen du. Urtero Txutxu trenan izaten

da martxan herrigunea eta hondartza lotzeko. Herriko jendeaz gain, kanpotik etorritako bisitariek ere erabiltzen dute trenak, baita udalekuetako taldeek ere. Udal kanpinean ere bizikletak alokairuan egon dira udan.

Donejakue Interpretazio Zentroak bidea egiten ari diren entzatzat geldialdi didaktikoa ekaintzen du. Aurten, denboraldi altuan erromesentzat 10 lagunentzako karpa bat jarri dute kanpinean, San Martin aterpetxea beteta zegoenean erromesei ostatu emateko.

Herriko bi jatetxetan Kosta Gastronomika esperientzia eskaini dute aurten. Katxiña eta Xixario jatetxeetan ostiraletan bisigua parrilan nola erretzen den ikasi dute bisitariek. Horrez gain, Bisiguaren Festak ere bisitariak erakartzen ditu.

Kultur eskaintza ere izan ohi da udan Orion. Urtero udalak zinema antolatzen du hondartzan. Ozzy, Zootropolis, Igelak eta Star Trek filmak eman dituz-

te aurten. Eguraldiagatik ikastolako pergolan egin dira batzuk. Hainbat kontzertu ere egin dituzte uda partean: Deborah Carter bostekoa –Jazzaldia- ren barruan–, Chanson Française, Rhiain Bebb...

Hori guztiaz gain, aurten Oriotik abiatuta Donostiako Aste Nagusiko su artifzialak itsasotik ikusteko irteerak antolatu ditu udalak.

## 9.258 bisitari

Urtea hasi zenetik 9.258 bisitari pasa dira Orioko Turismo Bulegotik. Bisitarien gehiengoa estatu espainiarretik etorritakoa izan da –4.196–, gero atzerritarrak –3.022–, Euskadikoa –1.485– eta herritarrak –555–.

Estatutik etorritakoen artean, katalanak izan dira gehiengoa. Atzeritarren artean, Frantziatik etorri dira gehien eta EAetik gipuzkoarrak.

Bestalde, 2.715 erromes pasa dira turismo bulegotik.



### EAJ Naturarekin, sustraiekin eta jasangarria

Asko hitz egin da Turismoaz udara honetan. Bateko eta bes-teko iritzi ezberdin ugari entzun ditugu inguruan. Orion ere eztabaidagai izan da Turismoa, nola ez.

Ezin ukatu dezakegu Oriorentzat turismoa motore ekonomiko garrantzitsua dela, ez bakarrik orain, aspalditik izan da Orio bisitariarentzat helduleku interesgarria.

Izan ere Oriok asko du eskaintzeko. Hondartza eta gastronomiaz harago, esperientzi on asko du eskaintzeko gure herriak. Naturaz gozatzeko plan ugari eskaini daitezke: hondartza, mendia, ibaia... eskaintza hauek adin eta egoera guztietara moldatzen direlarik gainera.

Oriok herri txiki arrantzalearen xarma eta izaera mantentzen du. Badu ere atzetik, itsasoaren inguruko ondare historiko interesgarria. Orioko EAJtik izaera honekin errespetuz jokatu duen turismo jasangarriaren eredia landu nahi dugu, herriak behar du eta enplegua sortuko duen pizgarri bat.



### Orain Bila, bila... bonbila

Turismo eredu egokiena aukeratzeko aurrena non eta nola gauden jakin behar da. Kostaldeko herriei leial lehiatzeko nolako estrategiak erabili dituzten jakin, nola joan zaien ezagutu eta Orioko turismoak behar duen norabidea finkatuz epe motz, ertain eta luzerako helburuak zehaztu.

Horren guztiak lana eskatzen du eta horretarako aspaldian, ez da izango ez delako eskatu, lanean egon behar zen Turismo, Merkataritza eta Ostalaritzako teknikaria kontratatuko du Udalak. Izena emateko epea bukatu da eta laster aukeraketa frogak hasiko dira.

2011-15 legealdian apustu garbia egin zuen Udal Gobernuak turismoaren alde kanpina eraberrituz. Oraingoan lana ez da falta: etxebizitza turistikoak arautuko duen ordenantza, autopista azpitik errio gainean pasabidea egitea aztertu, e. a. Garenaren eta egiten dugunaren arabera etorriko da herrira nahi dugun turismoa.



### EH Bildu Turismo eredu egokiena Oriorentzat

Egokiena? Ez da erraz erantzuteko galdera. Orio eremu geografiko paregabean dago, itsasoa, mendia eta ibai eder baten artean. Gure ustez, turismoa arlo horretara bideratu behar dugu.

Atzera begiratzen badugu, gure herrian famili giroko turismoa zen nagusi, bertan egiten zuten uda osoa askok. Berriro ere horrelako zerbait bultzatu beharko genukeela uste dugu. Orion lo egin eta eguna kanpoan pasa ordez, bisitaria bertan gera dadin kalitatezko helmuga turistiko bat eskaini behar dugu, ikuspegi jasangarri batetik. Herri honek altxor ugari ditu, baliabide natural anitz, ingurune ederra, ondare kulturala, gastronomia eskaintza zabala... Bestalde, kontutan hartu behar da turismoak hainbat desabantaila sor ditzakeela: trafikoa, aparkalekua arazoak, zarata... baina, oraingoan, jasangaitza izatetik urrun gabiltza, eta arazo horiek ekiditeko eredu turistiko bateratu bat garatu behar dugu. Ondo legoke Udaletik turismo eredu jasangarri bat bultzatzea, tokiko tradizioa eta idiosinkrasia oinarritzat hartuz.



### PSE-EE Hiru urte galduta

EAJk Orion turismoaren etorkizunaz galdetzen digu. Sineztezina.

Legealdiaren bi urte pasa dira eta Udalak oraindik ez du turismo teknikaririk. Hori pertsonal batzordeko buruaren, Jose Angel Zaldua alkatearen antolakuntza eta lan faltagatik da. Pertsonal batzordean landu eta atera behar zen turismo teknikariaren lanpostua, eta 2016 osoan alkateak ez zuen batzorde bat bera ere deitu, postu horrek turismoa sustatzeko duen garrantzia jakinda ere.

Lanpostua udalbatzarrera 2017ko ekainean iritsi zen. Deialdi publikoa, hautaketa eta esleipena egiteko behar den denbora kontuan izanda, zortea izango dugu 2018rako teknikari berria badugu.

Esandako guztiaren batura eginez gero, ia hiru urteko lana galdu dugu. Denbora hori lan egiteko eta turismoaren oinarriak finkatzeko erabili behar zen.



## Kultura

# Gune Irekiaren Lagunen topaketa egingo dute Etxeluze gaztetxean



Gune Irekia gaiak taldean lantzeko metodologia da, oinarrian irekia dena eta estruktura bat jarraitzen duena. Gai orokor baten inguruan parte-hartzaileek landu nahi dituzten gaiak proposatzen dituzte, eta jardunaldian zehar horiek lantzen dira talde txikitan.

Etxeluze gaztetxeak Gune Irekiaren lagun topagunea hartuko du urriaren 21ean eta 22an, eta bi egunetan metodologia hori erabiliko dute zenbait gai lantzeko. Normalean gai baten inguruan egiten dira gune irekiak –dio antolatzaile-

etako batek-; Orion egingo dugunaren berezitasuna landuko den gaia Gune Irekia bera izango dela da.

Bi egun iraungo ditu topaketak eta estruktura beretsua jarraituko dute bietan, gune irekiaren estruktura: *goizean, lehen tarteetan metodologia azaltzen da eta el-karrizketarako gaiak jasotzen dira. Espazio horri merkatua deitzen zaio: orma batean ordutegiak, espazioak eta gaiak antolatzen dira. Horrela, taula bat betetzen da eta egunean zehar elkarrizketak gertatzen doaz aurrez finkatutako ordutegi*

*eta lekuetan.* Gune irekiari buruzko jardunaldia denez, *aurrez zehaztutako gai bat landuko dugu: gune irekia.*

Topagune hau guztiz irekia da parte hartu nahi duen ororentzat, urriaren 21 eta 22an –edo bi egunetan– Etxeluzera joatea besterik ez du egin behar parte hartu nahi duenak. *Eskualdean dauden talde edo elkarteak ere gonbidatu nahi ditugu parte hartzera, asanbladan lan egiten dutena, adibidez. Talde askori metodologia hau interesgarria irudituko zaiela uste dugu.*

## Gizartea

# Jende mordoa bildu zen Kataluniaren aldeko elkarretaratzean



Orain Herri Plataformak, Orioko EH Bilduk, Etxeluze Gaztetxeak eta Orioko Gure Esku Dagok elkarretaratzea egiteko deialdia egin zuten irailaren 21ean, Kataluniari elkartasuna adierazteko. 19:30ean hasi zen elkarretaratzea, herriko plazan. Jende mordoa bildu zen plazan Katalunian gertatutakoa salatu eta katalanei babesa emateko. Adierazpen bat irakurri zuten hainbat herritarrek, euskaraz eta katalanez eta *L'estaca* abestia abestu zuten ondoren. Amaitzeko, argazki jendetsua atera zuten elkarretaratzean izan ziren herritarrek.



## Kirola

### Mikel Atxega Euskal Herriko txapelkun, junior mailan

Mikel Atxegak Euskal Herriko bodyboard txapelketa eta Euskal zirkuituko 1. proba irabazi zituen irailaren 24ean, junior mailan. Sopelan lehiatu ziren bodyboard zaleek, iragarri bezala, olatu nahikoa onak izan zituzten egun guztian zehar.

Mikelek gogoz hasi zuen lehiaketa, motibazio handiarekin. *Bezperan, Landetan izan nintzen lagun batekin, eta bi saio egin genituen uretan, txapelketarako puntuan jartzeko. Ez genituen olatu oso onak hartu, baina sentsazio oso onekin itzuli nintzen etxera*, dio Atxegak.

Goizeko lehen kanporaketan Open mailan lehiatu zen, eta ondo lortu zuen hurrengorako sailkatzea. Txapelketako finalerdietaraino iristea lortuta, 5. postuan sailkatu zen oriotar gaztea.

Egunean zehar, Open eta Junior kategorietako kanporaketak txandaka egin zituen Mikelek. Junior mailako kanporaketak *eroso* pasa ostean, finalerako sailkatu zen, eta hau, *olatu oso on bati esker* irabazi zuen. Garaipen honek motibazioa indartu dio Atxegari. *Ea europar zirkuituko txapelketa bat Zumaian jokatzeko den, eta bertan parte hartzeko aukera dudan*, adierazi du irrikaz.

## Kultura

### Egurrezko taila eta eskultura ikastaroa emango du Mendizabalek ikastolan

Egurrezko taila eta eskultura ikastaroa emango du Antxon Mendizabalek, ikasturte honetan, Orioko Herri Ikastolan. Eskolaz kanpoko jarduera eskaintzen artean dago ikastaroa eta urriaren 6an hasiko dira eskolak.

Ikastolako teknologia gelan izango da taila ikastaroa, ostiralean, 17:00etatik 19:00etara. 35 euroko prezioa izango du eta bertan sartzen dira ariketak egiteko egurra eta lan tresnak. Izena eman nahi duenak Ikastolako idazkaritzan bertan edo 943 83 47 04 eta 658 710 177 telefono zenbakietan egin dezake.

## Kirola

### Euskal Herriko arraun surf zirkuitoko froga bat jokatu da Orion

Euskal Herriko Surf Federazioak (EHSF) eta Gipuzkoako Surf Federazioak (GSF) arraun surf txapelketa bat antolatu dute Orion, urriaren 7rako. Modalitate honetan, bi eratako lehiaketak izaten dira: ohiko surf txapelketetan bezala, olatu artean maniobrak egiten lehiatzen dira batzuk, eta ibai edo itsaso zabalean estropada estiloan besteak.

Orion egingo den txapelketan, 80 parte hartzailetik gora espero dira errioko gora eta beheko arraunean. Parte hartu nahi dutenek, urriaren 6a baino lehenago eman behar dute izena. Lehia honetaz gain, estropada popularra ere antolatu dute, presiorik gabe arraun egin nahi dutenentzat. Hauek, txapelketa egunean bertan eman dezakete izena. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, sariak berdinak izango dira emakumezko eta gizonezkoentzat.



## Kultura

### Jose Luis Odrizolak irabazi zuen Ordiziako Gazta Lehiaketa

Euskal Jaiei barruan, azoka berezia egiten dute urtero Ordizian. Irailaren 6an, Ordiziako 44. Ardi Gazta Txapelketako sariak eman zituzten Beti-Alai pilotalekuan, eta Aiako Jose Luis Odrizolaren gazta izan zen txapelketa. Aiarak garaikurra, diploma, 12.000 etiketa eta 1.500 euro irabazi zituen.

Bestalde, irabazlearen gazta erdia enkantera ateratu zuten, eta Olaberriako Carrefour dendak 8.200 euro ordaindu zituen, ia baino 200 euro gehiago. Enkantean ateratakoa Ordiziako San Jose Egoitzarentzat izango zela azaldu zuten sari banaketan.

Denera, 45 gazta aurkeztu ziren aurtengo lehiaketara.

**ZERBITZUAK****AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

■ Bilagun ostatu bila. Pisu bat alokatu nahi dugu. Tf: 632420818

■ Logela alokagai Orion. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30metroko terraza du. Tf: 652551550

■ Orioko familia euskalduna alokairu bila herrian bertan. Gutxienez bi logela. Tf: 635201600

■ 3 logelatako eta garaje-dun Babes Ofizialeko etxea alokatzen dut An-datza auzoan. Tfnoa: 660893220

**Lan eskaintza**

■ Emakume baten bila gabiltza, etxeko lanak egin, eta haurrak zaintzeko. Goiz eta arratsaldeko lana izango litzateke, haurrak eskolara eraman, eta eskolatik jaso ahal izateko. Disponibilitatea eskertuko da. Harremanetarako zenbakia: 606675048

**Lan eskaera**

■ Emakumea lan bila. Esperientzia du pertsona helduak zaintzen, garbiketara eta besta hainbat lanetan. Paperak egune-

ratuta eta gomendioak ditut. Tf: 674123293

■ 34 urteko neska euskaldun eta arduratsua naiz, arratsalde haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo eta partikularrak emateko prest, (astelehenetik, ostiralerara). Tf: 659321326

■ Emakumea lan bila, barnekoa, kanpoko edo gauez. Haur edo zaharren zainketa edo garbiketara lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziekin. Tf: 600390347 -Katy-

■ Karmele, 50 urteko euskalduna umeak zaintzeko lan bila. Tf: 687200368

■ Umeak zaintzeko eskaintzen da emakume bat. Esperientziaduna Tf: 664156444

■ Neska lan bila zaharren zaintzan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 674123293

■ Ordukako lan bila dabilen mutila. Garbiketara eta helduen zaintzan. 603644555

**Salgai**

■ Intxaurrak salgai: Pasa den neguko intxaurrak aurtengoak lehortzen diren bitartean, etxera eramanda: 3 kilo, 10 €. Pat-i deitu: 634 424 887 edo

943132131.

■ Salgai: ohe artikulatua, 1,05 metro, koltxoi eta guzti, egoera oso onean. Aluminiozko taka-taka berri berria. Tf: 661027096

■ Etxebizitza salgai arrantzale kalean. Duplex-a, 3 logela, 2 komun, sala, garajea. Permuta beste etxebizitza txikiagotatik ere egin daiteke. Interesatuak deitu 648820190 telefonora.

**ITSASOA**

| EGUNA | ITSASGORA       | ITSASBEHERA     | ILARGIA |
|-------|-----------------|-----------------|---------|
| 01    | 2:08 eta 14:28  | 8:02 eta 20:36  | ☾       |
| 02    | 2:59 eta 15:14  | 8:53 eta 21:20  | ☾       |
| 03    | 3:39 eta 15:53  | 9:35 eta 21:59  | ☾       |
| 04    | 4:15 eta 16:30  | 10:13 eta 22:36 | ☾       |
| 05    | 4:51 eta 17:06  | 10:50 eta 23:13 | ☾       |
| 06    | 5:26 eta 17:43  | 11:28 eta 23:50 | ☾       |
| 07    | 6:03 eta 18:21  | 12:07 eta ____  | ☾       |
| 08    | 6:41 eta 19:02  | 0:29 eta 12:48  | ☾       |
| 09    | 7:23 eta 19:47  | 1:10 eta 13:32  | ☾       |
| 10    | 8:08 eta 20:37  | 1:55 eta 14:21  | ☾       |
| 11    | 9:02 eta 21:37  | 2:45 eta 15:17  | ☾       |
| 12    | 10:07 eta 22:54 | 3:45 eta 16:27  | ☾       |
| 13    | 11:30 eta ____  | 4:59 eta 17:50  | ☾       |
| 14    | 0:25 eta 12:58  | 6:23 eta 19:14  | ☾       |
| 15    | 1:47 eta 14:11  | 7:42 eta 20:23  | ☾       |
| 16    | 2:50 eta 15:09  | 8:44 eta 21:17  | ☾       |
| 17    | 3:40 eta 15:56  | 9:34 eta 22:02  | ☾       |
| 18    | 4:21 eta 16:37  | 10:17 eta 22:40 | ☾       |
| 19    | 4:58 eta 17:13  | 10:55 eta 23:15 | ☾       |
| 20    | 5:32 eta 17:47  | 11:30 eta 23:49 | ☾       |
| 21    | 6:04 eta 18:20  | 12:05 eta ____  | ☾       |
| 22    | 6:35 eta 18:52  | 0:21 eta 12:39  | ☾       |
| 23    | 7:07 eta 19:25  | 0:54 eta 13:14  | ☾       |
| 24    | 7:40 eta 20:00  | 1:28 eta 13:51  | ☾       |
| 25    | 8:16 eta 20:40  | 2:05 eta 14:32  | ☾       |
| 26    | 8:59 eta 21:30  | 2:47 eta 15:20  | ☾       |
| 27    | 9:54 eta 22:37  | 3:38 eta 16:21  | ☾       |
| 28    | 11:09 eta ____  | 4:45 eta 17:35  | ☾       |
| 29    | 0:03 eta 11:31  | 5:03 eta 17:51  | ☾       |
| 30    | 0:20 eta 12:40  | 6:15 eta 18:52  | ☾       |
| 31    | 1:16 eta 13:32  | 7:12 eta 19:41  | ☾       |

**ZAINTZAKO BOTIKAK****URRIA:**

- 1ean, Esparza
- 2tik 6ra, Lasa
- 7an eta 8an, Larrañaga
- 9an, Lasa
- 10ean, Mutiozabal
- 11n, Gallo
- 12an, Larrañaga
- 13an, Esparza
- 14an eta 15ean, Izipuzua
- 16an, Zulaika
- 17an, Lasa
- 18an, Esparza
- 19an, Larrañaga
- 20an, Lasa
- 21 eta 22an, Etxeberria
- 23an, Iriarte
- 24an, Esparza
- 25ean, Izipuzua
- 26an, Iturria
- 27an, Etxeberria
- 28an eta 29an, Izipuzua
- 30ean, Esparza
- 31n, Larrañaga

**Izipuzua:** Urdaneta kalea, 8.

943 13 31 83 Zarautz

**Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17.

943 83 23 98 Zarautz

**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12.

943 83 29 70 Zarautz

**Larrañaga:** S. Frantzisko, 16.

943 13 38 14 Zarautz

**Lasa:** Herriko plaza.

943 83 09 36 Orio

**Gallo:** Zigorria kalea, 17.

943 13 40 19 Zarautz

**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo

Enea. 943 13 29 83 Zarautz

**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41

943 13 39 94 Zarautz

**Esparza:** Santiturturi plaza, 5.

943 50 47 83 Zarautz

**Atzeko azala:**

Duela 25 urte Oriok Kontxa irabazi zuenean jantzi zen horiz lehen aldiz KARKARA. Eskuz margotu zituzten, orduan, argazkiko trainerua eta arraularien jantziak.



## KOMIKIA



## Orio

**Hitzaldia**

- Urriaren 5an, Feli Oregiren hitzaldia: Haurraren garapena pausoz pauso. 18:30ean, Salatxo aretoan.

**SUP txapelketa**

- Urriaren 7an, Euskal Herriko SUP Race zirkuituko proba eta hainbat jarduera, egun osoan zehar.

**Erakusketak**

- Urriaren 12tik 15era Ostari elkartearren lanen erakusketa Kultur Etxean.
- Urriaren 27tik azaroaren 24ra Lourdes Elorza donostiarraren pintura erakusketa Kultur Etxean.

**Liburuak eta ipuinak partekatzen**

- Urriaren 16an, 18an, 23an eta 25ean, *Liburuak eta ipuinak partekatzen* tailerra Pello Añorgaren eskutik, 0-6 urte bitarteko haurren gorasoentzat. 17:45etik 19:45era, Kultur Etxean.

**Musika**

- Urriaren 20an Vegetal Jam taldearen kontzertua, 22:30ean Kultur Etxean.
- Urriaren 21ean Motxila 21en kontzertua, 19:00etan herriko plazan.
- Urriaren 22an Anariren kontzertua,

19:00etan Etxeluze gaztetxean.

**Mandalara jardunaldiak**

- Urriaren 20an Mandalak, hitzaldi praktikoa Ahimsa Lara Riberaren eskutik, 19:00etan.
- Urriaren 21ean, 10:30ean binakako yoga, Jesika Moralesen eskutik; 12:00etan orgonita tailerra Antonio Abaden eskutik; 17:00etan *heriotza duina eta azken nahiak* tailerra Iñaki Olaizolaren eskutik; 19:00etan Koldo Aldairen *Solo un hasta luego* liburuaren aurkezpena.
- Urriaren 22an, 12:00etan *Isildutako do-lua* tailerra Nahaia Alkortaren eskutik eta 17:00etan *La flamencura todo lo cura* tailerra Monica Nuñezen eskutik.
- Tailer eta hitzaldi guztiak Arraunetxan izango dira, doan.

**Gune Irekiaren Lagunen topagunea**

- Urriaren 21etan eta 22an Gune Irekiaren Lagunen topagunea Etxeluzen.

**Zinema**

- Urriaren 26an *Ama nora goaz* dokumentalaren proiektzioa, 19:30ean Kultur Etxean.

**Kalefood**

- Urriaren 28an eta 29an Kalefood ikas-

tola ondoko parkean, egun osoan. Musika, gastronomia eta moda.

**Traste zaharrak**

- Urriaren 11n eta 25ean, traste zaharren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu behar da: 943830346.

## Aia


**Laurgaingo San Migel jaiak**

- Irailaren 29an San Migel eguna Laurgainen: 10:30ean San Migel meza, jarraian hamaiketako eta herri kirol erakustaldia Landarbide eta bere lagunekin, goiza auzoko trikitilariak alaituko dute. 21:00etan auzo afaria Atsedean toki elkartean eta ondoren erromeria Izer eta Alabier trikitilariak.
- Irailaren 30ean, 17:00etan ume jolasak eta txokolatada, 18:30ean tortila patata lehiaketa eta ondoren afari merienda. 23:00etan erromeria Elustondo anai-arrebekin.

**Podologia**

- Urriaren 28an podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.





**Aurten bai !**